

Goienka2a

GEEK
TOPIKOA ETA
ERREALITEA



KIROLA: BATUKA IKASTAROAK IZANGO DIRA ARETXABALETAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko abenduaren 2a • VI. urtea

223. zenbakia • DOAN BANATZEKO

ANTZUOLA

Herriko zirkulazioa hobetzeko errepidea egiten hasi dira /6

PILI IRIARTE / FAGOR ETXETRESNAK

"Inork ez zuen ikusi globalizazioaren eta merkatuak zabaltzearen beste aldea" /7

OÑATI

Datorren urterako 20 milioi euroko aurrekontua /6



IRATI AGIRREAZALDEGI

Elgetako saihesbidea zabalik dago

Elgetako saihesbidearen lehen zatia zabalik dago eguaztena ezkerre. Bide berriak Elgetatik Kanpazarrerako irteera lotzen du Elorriorantz doan bidearekin. Horrela, ibilgailu gutxiago sartuko dira herri barrura. Inaugurazio ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Elgetako Udaleko ordezkariak izan ziren, besteak beste. Joxe Juan Gonzalez de Txabarri ahalgabetatuta esan du Aldundia ahalegin berezia egiten dabilela azken urteotan herri txikiengan; Patxi Basauri alkatearen iritziz, saihesbidea herriaren onura da. Elgetako Aralarrek azaldu du horren ostean bi erronka daudela: Salvador kalea oinezkoentzako egokitzea eta saihesbideko bigarren fasea egitea.

ASTEKO GAIA: GOIENKARIA-K BOST URTE

Bost urteren ondoren, berrikuntza

GOIENKARIAk 5. urteurrena egin du abenduaren 1ean, eta hurrengo erronka da bere burua berritzea. Orain arte ere hainbat aldaketa izan ditu aldizkariak: herri aldizkarietatik edizioetarako jauzia, esaterako. Sariak ere ez dira aparte izan, bai kazaritza arlokoak eta baita diseinuari dagozkionak ere. Bestalde,

azken urteotan bidaia lagun izan du *Asteleheneko Goienkaria*. Baina denbora ez da alferrik igaro, eta seigarreneko bidean beste pauso batzuk emango ditu Debagoieneko aldizkariak: 2006ko urtarrilaren 27an beritutako GOIENKARIA izango da kalean, edizio bakarrekoa eta diseinu aldetik modernoagoa. /2-3

Lurreko telebista digitala ibarreko herri batzuetan bakarrik ikusten da

Lurreko Telebista Digitala (LTD) eguaztenean, azaroaren 30ean, ezarri zuten modu ofizialean, baina, beritasun teknologiko gehienek bezala, ez da bat-batean gutziongana heldu: Debagoienean,

esaterako, Arrasaten eta Aretxabaletan bakarrik hartzen da seinalea; baita Eskoriatzako zati baten ere. Gainerako herriek itxaron egin beharko dute seinale hori hartzeko. /5

Datorren GOIENKARIA, eguaztenean

Sortzez Garbiaren zubia dela eta, datorren GOIENKARIA ez duzu egubakoitzean jasoko, irakurle, eguaztenean baizik, **abenduaren 7an**. Zenbaki horrek, herrietako albisteendako tarte handiagoa izango du, edizioen ordez.

Audi A3 Sportback
Automobil hutsa baino gehiago.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



RK/UAZ
ALTAIRIAK
Araba etorbidea 20
Tel/Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA
Milarte 3
Tel/Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
FAGOR
ELEKTRAGAILUAK
Andramari auzunea
Tel/Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES
Araba etorbidea 5
Tel/Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

Goienkaria, bost urteren ostean, aurrera

Ondo bidean urtarrilaren 27an GOIENKARIA berritua kaleratuko du Goienak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bederatzi herri, bi edizio, hiru egoitza eta 19.000 ale egubakoitzero; eta beste edizio bat asteleheneretan. Hori guztiori eta gehiago da zenbakitan GOIENKARIA.

Bost urte pasatu dira 2000ko abenduaren lehen GOIENKARIA sortu zenetik. Etorkizunerako aldatzea eta berritzea da GOIENKARIAren asmoa, eta horretan dihardu. Hala, GOIENKARIA guztiz berritua izango da 2006 urte hasieran.

HAINBAT EDIZIO

Laburra bai, baina oparoa da ere GOIENKARIAren historia. Hasieran, ibarreko herri aldizkariekin batera banatzen zen: astekariak zeuden tokian haiekin batera eta astekaririk ez zegoen herrietan, bakarrik. Herri gehienetan hamabostekari edo hila-betekariak zeuden orduan eta haiekin batera banatzen zen.

Gero, herri aldizkariak egunkari itxura hartu zuten, 2001eko urrian, eta GOIENKARIArekin bat egin. Itxura ez ezik, maiztasuna ere bateratu zuten, eta guz-

tiak asteroko izatera pasatu. Horrela, hiru multzo osatu ziren: Bergara alderako bat (Bergara, Antzuola eta Elgeta); Arrasate eta Aramaiorako beste bat; eta Leintz alderako hirugarrena. Beraz, herri bakoitzean bertako edizioa eta GOIENKARIA jasotzen zituzten, Oñatin izan ezik; hemen GOIENKARIA bakarrik banatzen zen.

Baina hiru ediziotik birako jauzia ere eman du aurten GOIENKARIAk. Batek jasotzen ditu *Arrasate Press*, *Aretxagazeta*, Eskoriatzako *Ze Barri?*, Aramaioko *Txirritola* eta Leintz Gatzagako *Uratik*. Besteak, berriz, *Berrigara*, Antzuolako *Kontuola*, Elgetako *Goibekokale* eta Oñatiri eskainitako orri bat.

Aldaketa harekin, datorren urte hasieran abiatuko den GOIENKARIA berrirako lehen urratsa egin zen, hau da, edizio bakarrerako urratsa.

ASTELEHENERO

Egubakoitzeko GOIENKARIAk bidaia laguna aurkitu zuen 2003ko abenduaren 22an. Orduan sortu zen *Asteleheneko Goienkaria*, eta 2004ko otsailaren 19tik aurrera batera egin dute bidaia; bata egubakoitzetan eta astelehenetan besteak. Hala, egubakoitzetakoak asteko albiste nagusien gainbegiratuak egin eta asteburuak ekarriko duenaren berri ematen du, eta *Asteleheneko Goienkaria*-k asteburuan ibarrean gertatu den guztiaren berri

ematen du. Gainera, inork baino zabalago eta inork baino lehenago. Halaber, asteak ekarriko duena ere izaten du aipagai bere orrialdeetan.

Egubakoitzekoa ez bezala, astelehenekoa jasotzeko harpidetza ordaindu beharra dago; edo egunkari saltokietan ere eros daiteke. Gaur egun 4.700 harpidedun ditu.

SARIAK

Debagoiendarrek GOIENKARIA jaso eta irakurtzea bada nahiko sari Goienarentzat; baina ezin aipatu gabe utzi astekariak bost urteko ibilbidean jasotako sariak. Kazetaritza arloan Rikardo Arregi sarian aipamen berezia jaso zuen Leire Kortabarria kazeta-

riak erreportaje eskusibo baten-gatik eta Argia saria ere jaso zuen GOIENKARIAk. Diseinuari dagokionez, SND erakundearen *Design* aldizkariak *Arrasate Press* Egunkari Txikirik Onena izendatu zuen; *European Newspaper Award* saria bi aldiz jaso du GOIENKARIAk; eta iaz Europako Egunkariaren Elkartek GOIENKARIAren diseinuari aipamen berezia egin zion. Espainiako eta Portugalgo egunkariaren sari banaketan, GOIENKARIAk jaso zuen diseinu hoberenaren aipamena.


EDIZIO BAKARRA

Baina denbora ez da alferrik igaro eta GOIENKARIAk etorkizunean jarriak ditu begiak eta gogoak. Seigarren urteko bidaia abiatuta, beste berrikuntza bat dator urtarrilaren amaierarako. GOIENKARIAren edizio bakarra egin nahi du Goienak herri guztietarako. 56 orrikoa izango da, eta horietatik 32 koloreetan. Eneko Azkarate GOIENKARIAko zuzendariak azaldu dizkigu edizio bakarra egiteko arrazoiak: "Hainbat edizio egiteak asko garestitzen du kostua eta haiek

"Hasieran ibarreko herri aldizkariekin banatzen zen; orain aldizkariaren barruan daude"

"Egubakoitzekoak asteko albisteak jasotzen ditu eta astelehenekoak, asteburuak"

"Bost urteotan kazetaritza eta diseinu arloko hainbat sari jaso ditu GOIENKARIAk"



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOAK


- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73





ORAIN DELA BOST URTE

GOIENKARIA 2000ko abenduaren 1ean jaio eta herri aldizkariekin banatzen zen. Goienako ordezkariak aurkeztu zuten jende aurrean.



LEHEN ZENBAKIA

Aldaketak izan dira edizio bako lehen zenbakitik oraingora.



EGUNKARI ITXURA

2001eko urrian herri aldizkariak egunkari itxura hartu zuten.



BI EDIZIO

Aurtengo apirilean bi ediziora pasatu da aldizkaria.



ASTELEHENEKO

2003ko Santamas egunean aterazen Asteleheneko Goienkaria.



ASTERO 19.000 ALE

Egubakoitzetan banatzen da GOIENKARIA, Iruñeko errotatiban (irudian) inprimatuta; astero 19.000 ale iristen dira ibarreko etxeetara.



KAZETARITZA ARLOKO SARIAK

GOIENKARIAK eta bertako kazetariak hainbat sari jaso dituzte: Rikardo Arregi saria (irudian Leire Kortabarria, kazetaria) eta Argia saria.



ASTELEHENERO 4.700 ETXETARA

Ordaindutako harpidetza bidez banatzen da Asteleheneko Goienkaria, eta gaur egun 4.700 harpidedun ditu.



PUNTAKO DISEINUA

Diseinu sariak jaso ditu GOIENKARIAK. Besteak beste, European Newspaper Award. Irudian Goio Arana eta Iñaki Iturbe saria jasotzen.



HERRITARRAK SUSTENGU

Herritarren aurrean aurkeztu zen Asteleheneko Goienkaria herriz herri (irudian Oñatiko aurkezpena). Irakurleak dira aldizkariaren sustengua.

arrazionalizatu beharra dago. Bestalde, gure eskualdean gero eta interes handiagoa dago komunak zaizkigun gauzei buruz irakurri eta entzuteko: norberaren herriko kontuez gainera, inguruko herriko gauzez ere jakin nahi dute debagoiendarrek”.

Hala ere, norberaren herriko informazioa estimatzen dela jakinda, herriko informazioak tarte zabala izango du. “Hemen ibarreko herri guztietako informazioa agertuko da; baina Oñatik ez du orri propioa edukiko, Udalak ez duelako herriko infor-

mazioa finantzatu nahi”, esan digu Eneko Azkaratek.

Edukiaz eta orrien banaketaz gain, diseinua ere berria izango du GOIENKARIAK. Goio Arana diseinu arduradunaren esanetan, “kontuan hartuta GOIENKARIA jende ezberdin askorengana iristen dela, denendako moduko diseinua egin nahi dugu: modernoa baina era berean dotorea eta, noski, irakurterraza”.

Oraindik diseinu berria gertatzen badihardute ere, hainbat gauza aurreratu dizkigu Goio Aranak: “Tipografia aldatu egingo

dugu, sinpleagoa eginda. Bestalde, GOIENKARIA berriak kolore gehiago izango du eta horrek diseinuari joko handiagoa emango dio. Ohiko azalaz eta Goienka2a atalekoaz gain, Herriak atalak ere bere azala izango du”.

GOIENKARIA berritzeko, herritarren laguntza eta iritziak ere ezinbestekoak dira. Horrela, Goienkaria berritzen bloga dago abian, aldizkari berriaren gainean jendearen iritziak jasotzeko. www.goiena.net/blogak/goienkaria helbidean jaso dezakezue informazio zabalagoa.

Irakurlerik gabe, ezer ez

I nazio Arregi Goienako zuzendariak bost urteen balorazioa eta etorkizunerako begirada eskaini dizkigu: “Aldizkari bat ez da ezer irakurlerik gabe, eta zerbait azpimarratzekotan, GOIENKARIAK herritarren aldetik jaso duen harrera aipatuko nuke. 19.000 aleko tirada (euskarazko astekarietan handiena), Europako diseinu sariak edo irakurleen puntuazioa (7,7) dira diodanaren adierazle. Gure irakurleei, zuei, zor dizuegu gure lana, eta zuentzat produktu hobekuntzak: orri gehiago, kolore gehiago... eta beste ikuspegi bat. Eskualdea eta eskualdeko bizitza erreferente nagusi izango duen proiektua. Zuk, irakurle, esango diguzu asmatu egin dugun edo ez”.



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
BMW 320 D 2005
BMW X3 D BERRIA
BMW 320 D BERRIA
BMW M3 2003
VW TOUAREG HAINBAT

Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

VW PASSAT TDI 2003
MB ML 320 HAINBAT
BMW 320 D TOURING . . . 2003
BMW 330 D TOURING . . . 2002
AUDI A4 TDI AVANT . . . BERRIA
AUDI A6 3.0 TDI BERRIA
AUDI TT 1.8T 2002



UBANE MADERA

Arrasateko Udaleko osoko bilkuran baserritarrek eta harakinek hiltegiaren gaineko eztabaida jarraitu zuten.

Mankomunitateak erabaki du berak kudeatzea Oñatiko abereen hiltegia

Procarsa enpresak hiltegia kudeatzeko proposamena atzera bota dute

IRATI AGIRREAZALDEGI/ NEREA ZUBIETE

Debagoieneko Mankomunitateak atzera bota du Procarsa enpresak hiltegia kudeatzeko egin zuen proposamena. Eguaztenean Eskoriatzan egin zuen ohiko batzarra eta han erabaki zuen. Hiltegiak orain arte bezala jarraituko du.

Mankomunitateko ordezkariak erabaki dute hiltegia publiko izatea nahi dutela; beraz, Procarsa enpresaren asmoa atzera bota dute. Astelehenean Arrasateko Udalean eta aurrez ibarreko beste hainbat udaletan onartutako mozioa, berriz, ez zuten aztertu eguazteneko batzarrean.

Arrasateko osoko bilkuran onartu egin zen hiltegia publiko izateko eskatuz Aralarrek, Ezker Batua-Berdeak alderdiak, Alder-

di Popularrak eta Alderdi Sozialistak aurkeztutako mozioa, euren aldeko botoekin eta EAJ-ren eta EAren abstentzioekin.

ALDERDIEN KEZKA

Osoko bilkuraren ostean, Alderdi Popularrak eta Ezker Batuak kezka azaldu zuten, ez zeudelako seguru alkateak udalbatzarrean onartutakoa Mankomunitatean defendatuko ote zuen. Hala ere, alkateak argi utzi zuen Arrasaten

Arrasateko osoko bilkuran ere onartu zuten hiltegia publiko izateko mozioa

erabakitakoak ez zituela gauzak aldatuko. Izan ere, aurrez pentsatua zuen Mankomunitateko Hiltegiaren Batzordeak Gobernu Batzarrari proposatzea Mankomunitateak berak kudeatzea eta hiltegia publiko izatea.

OKELAREN SEKTOREA

Debagoieneko okelaren sektorea kezkatuta dago, eta hau uste du: "Mankomunitateak kudeatzen badu hiltegia, baina gestio planik landu gabe, bost urterako inbertsio planik egin gabe eta gerente independenterik kontratatu gabe, pixkanaka hiltzen joango da azpiegitura hori".

Hiltegia Bizirik plataformakoen esanetan, "aukera dago egoera bideragarri egiteko. Horretarako, baina, kudeaketa eta inbertsio plana ezinbestekoak dira".

Karibera bidaia oparituko du 'Asteleheneko Goienkaria'-k

Zozketa egingo du Goienak harpidedun guztien artean

GOIENKARIA

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun batek Dominikar Errepublikara bidaia irabaziko du. Izan ere, Goienak bi lagunendako bidaia zozketatuko du abenduaren 16an.

Asteleheneko Goienkaria-k 4.700 harpidedun inguru dauzka dagoeneko. Eta harpidedun horien fideltasuna saritzeko, Dominikar Errepublikara bi lagunendako bidaia zotz egingo du Goienak abenduaren 16an. Zozketa egunera bitartean ordaindutako harpidedun egiten diren guztiak ere sartuko dira promozioan.

BALDINTZAK

Iberia bidaia agentziaren esku-tik izango da bidaia, eta baldintzak agentziak berak ipintzen ditu.

Sariaren barne honakoak sartzen dira: Madrildik Punta Canara, Dominikar Errepublikara, joan-etorriko hegaldi berezia; lau izarreko hotelera bidaia eta egonaldia, dena barne; zazpi gau hotelean, bi oheko gelan; eta bidaia-asegurua.

Saridunak ezingo dio saria beste bati pasa. Urtebete izango du bidaia egiteko, saria jasotzen duenetik hasita, eta irteera baino zazpi egun lehenago baieztatu beharko du irteera.



Euskal curriculumaldarrikatuko dute

Hilaren 6rako euskal curriculumaren aldeko ekintzak deitu dituzte ibarreko Euskal Herriak Bere Eskola, Ikasle Abertzaleak eta LABek (argazkian). Hau da egitaraua: Arrasaten, euskal curriculumaren gaineko eztabaida (10:00), *Hezkuntzaren erronkak* hitzaldia (11:00) eta eskola ibiltaria; Bergaran, *Angiolillo nor izan zen?* hitzaldia (10:00) eta euskal curriculumaz eztabaida (11:00). /L.K.




KIA MOTORS

BERRIA

KIA RIO
Gasolina/Diesel
11.800 eurotik aurrera*

Ezagutu ezazu!



ESKANTZA BEREZIAK

KIA CARNIVAL
Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*

DVD-a DOAN



KIA SPORTAGE
Gasolina/Diesel
19.155 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g - Arrasate
943 79 22 67 -
Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- 2. eskuko autoen sekulako aukerak
- **0 km** aukera bereziak
- **3** urteko garantia

*Prever plana barne.

HONDA

The Power of Dreams

HONDA ACCORD

Munduko diesel motor onena bere kategorian



HONDA ACCORD
22.950 eurotik aurrera*

HONDA CIVIC gama osoan ESKANTZA BEREZIA

0 km ibilgailuak;
3.000 eurorainoko deskontua!

Auto berriak:
%13rainoko beherapena!



HONDA CIVIC (3 ate)
Gasoli./Dies.
13.300 eurotik aurrera*

Lurreko telebista digitala ez da ibarreko herri gehienetan ikusten

Arrasate eta Aretxabaleta bakarrik daude horretarako prestatuta

LEIRE KORTABARRIA

Lurreko Telebista Digital (LTD) sistemaren eskaintza aberastua Arrasaten, Aretxabaletan eta gainerako herrietan seinalea jasotzen duten lekuetan bakarrik ikusten da. Ibarreko instalatzaileek luzerako ikusten dute herri guztietan ipintzea.

Lurreko Telebista Digitalaren doako seinaleak Arrasate eta Aretxabaleta bakarrik harrapatzen ditu bete-betean, Muruko errepi-kagailua bakarrik dagoelako seinale horretarako egokituta. Ibarreko gainerako herriek beste errepi-kagailu batzuetatik jasotzen dute eta, horiek prestatu bitartean, ez dute LTDrik izango.

LTDren emisio aberastua azaroaren 30ean, eguaztena, hasi zen; ofizialki, Estatu osorako, baina errealitatea beste alde batetik doa. Lehenengo, populazio handieneko gunetan ezartzen ari dira LTD; pixkana, errepi-kagailuak egokitzen joango dira harik eta seinalea ahalik eta leku gehienetara iritsi arte. Gipuzkoan gauza bera egin denez, ibarrean Arrasateko errepi-kagailua bakarrik prestatu dute. Prozesua telebista tradizionala, kate pribatuak... ezarri zirenean bezalakoa da.

NOIZ JARRIKO DUTEN EZIN AURRESAN Arrasaten eta Aretxabaletan, lehendik LTDk eskaintzen zituen bost kateak –sistema arruntaz jasotzen diren berberak– eta oraingo eskaintza aberastua jasotzen dute: 16 telebista-seinale eta hiru irrati seinale. Horiek jasotzeko, komunitate-antena duten etxeek antena prestatu behar dute eta, gero, telebista digitala edo deskodetzaila erosi.

Gainerako herriek noiz gozatu ahal izango duten LTDz, hori ez dago auresaterik. Jose Miguel



LEIRE KORTABARRIA

Telebista digital eta deskodetzailen salmenta oso desberdina da herri batetik bestera.

Iruretagoiena Gipuzkoako Antenisten Elkarteko kideak dienez, ekipoak ipintzea askoren erabakia da: telebista-etxeena, udalena, instalatzaileena... Oinarrian, erakunde publikoek eta

RTVEk bultzatzen dute prozesua, baina faktore asko sartzen dira. “Dirua eta lana da, eta eragileek duten interesaren arabera ezarriko da LTD”, dio. Seguruenik, datorren urtean izango dira ibarrean aurrerapausoak.

Telebista digitalen eta deskodetzailen salmenta eta eskara desberdina da: Arrasaten jendea hasi da gehiago erosten, baina askok oraindik ez dakite gehiegi telebista sistema berriaren gainean, saltzaileek diotenez. Bergaran edo Oñatin, aldiz, saltzaile gehienek ez dituzte ekartzen, ez dutelako irteerarik.

Gertatuta dauden herrietan, 16 telebista kate eta irratiko hiru har daitezke

Jose Luis Elkorok: “Ez dute azalpenak ematen lagatzen”

Epaiketa psikologikoki gogorra dela salatu du

GOIENKARIA

Asteon deklaratu du Jose Luis Elkorok 18/98 sumarioko epaiketa gorabeheratsuan. Hura izan da epaiketan ETArekin harremana izan duela adierazi duen lehen auzipetua.

Jose Luis Elkorok martitzenean deklaratu behar zuen, baina desordena publikoa egotzita epaileak bertan behera utzi zuen saioa. Elkorok salatu du “agiriak falta direla eta ez dutela azalpenak emateko aukerarik ematen”.

ETArekin harremana izan duela adierazi zuen Elkorok. Hura izan da talde armatuarekin harre-

mana izan duela esan duen lehen auzipetua. Zergatia azaltzeko epaileak ez zion aukerarik eman.

Gaineratu du sumarioak galera ekonomiko handiak eragingo dizkiela inputatuei. “Bakoitzak sei mila euroko galerak izango ditu. Lanpostuetan ere eragina izango du eta askok lana utzi edo galdu egingo dute. Psikologikoki ere gogorra da”.

PROTESTA EKINTZAK

Epaiketa hori salatzeako eguenerako protesta ekintzak zeuden deituta: goizean ikastetxeetan eta lantegietan eta arratsaldean Arrasateko Herriko Etxearen aurrean.

DEBAGOIENEAN LABUR

Gabonak datozela eta, laguntza proiektu bana dute Harremanek eta Gurutze Gorriak

Harreman elkarteak elkartasun denda zabalduko du gaur, barikua, Arrasateko Ferrerías kalean. Herri pobreetan eginiko artisau lanak eta bidezko merkataritzako produktuak izango dira salgai. Jasotako dirua Hirugarren Munduko proiektuetara bideratuko dute. Denda abenduan barrena egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara eta jaiegunetan baita 12:00etatik 14etara ere.

Gazteen Gurutze Gorriak jostailu bilketa egingo du ume behar-tsuei banatzeko. Bilketa Debagoieneko Gurutze Gorriaren egoitzan egingo dute, Oñatiko Elorregi auzoan, astelehenetik egubakoitzera 19:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

Jaurlaritzak euskarazko komunikabideei laguntzak murriztu izana salatu du Goienak

Eusko Jaurlaritzak euskarazko komunikabideei ematen dizkien dirulaguntzetan murrizketak egon direla salatzeako ekitaldia egin dute gaur goizean Donostian, Topaguneak deituta, eta Goiena hantxe egon da. 2002tik hona %6 jaitsi da dirulaguntza, eta ezadostasuna azaldu dute Topaguneko elkarteek. Murrizketa salatzeaz gain, adierazi dute “sektoreak laguntza egonkorra eta jarraitua behar duela; Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen dirulaguntzen banaketa politika aldatu egin behar duela”. Bide batez eskatu dute “euskararen erabilerak duen garrantzia aurrekontuan islatzea, eta dirulaguntzak jasotzeko atzerapenak ez errepikatzea”.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

OÑATI

20 milioi pasatxo euroko aurrekontua onartu du Udalak datorren urterako

20.300.000 euroko aurrekontu bateratua onartu zuen Udalak 2006rako, martitzeneko osoko bilkuran; 2005ekoa baino %16 gehiago da. Udaleko zortzi erakundetan banatuko dute dirua. Kopuru handiena Udalak gestionatuko du: 17 milioi pasatxo euro. Hirigintzak eta Kirol sailak dituzte aurrekontuen partida handienak. Ezker Batua abstenitu egin zen; Ereitten Herri Plataformak esan zuen aurrekontu ez demokratikoak direla eta ezinezkoa zaiela onartzea. Biek proposamenak aurkeztu zituzten. /O.E.

ARAMAIO

Udalaren kontra errekurtsua ipini dute Udalbideri lagundu ziolako

Estatuko abokatuak Udalaren kontra errekurtsua ipini du. Laugarren aldia da hori egiten duela. Oraingo honetan, Udalbide Elkarlan Elkarteari 2.400 euroko laguntza ematearren salatu dute. Udalbide da Udalbiltzak sortutako elkarte. Hala, Udala epaitu egingo dute urtarrilaren 31n, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Alkatea izango da ordezkari. Dagoeneko hasi dira defentsaren oinarriak prestatzen. Akusazioak dio, besteak beste, Udalak laguntza eman duela arrazoi politikoengatik. /U.M.

ELGETA

Kiroldegia itxi egin dute elurteak egindako kaltea konpontzeko

Joan den asteko elurteek hainbat kalte egin dituzte kiroldegian. Pilotalekuko teilatua konpontzen dihardute, eta ura gimnasioko aldera pasatu da. Horren ondorioz, gimnasioko sabaian bi plaka hautsi dira eta itoginak sortu dira. Hala, erabiltzaileen segurtasunaren izenean, denboraldi baterako kiroldegia ixtea erabaki du Udalak. Hori dela eta, kirol saioak Herri Eskolako ganbaran egingo dituzte, orain arteko egun eta orduetan, kiroldegiko konponketek iraun artean. /I.A.



A.I.

ANTZUOLA

Lizarragarako errepideko lanek 6 bat hilabete iraungo dute

Astelehenean hasi zituzten Etkezuriko zubia eta Lizarraga auzoa batuko dituen errepidea eraikitzeko lanak. 453.785 euroko aurrekontua dute lanok, eta Izartu programak finantzatuko du diru horren %30; gainerakoa, berriz, Udalak. Sei hilabeteko epean amaituko dituzte lanak. Horiek amaitu eta gero, bigarren fase baten, Etkezuri ondoko zubia zabaldu eta bidegurutzea egingo dute; Diputazioaren ardura izango da fase hori.

Errepide horren helburua bikoitza da: batetik, Elayra doazen kamioien eta automobilen zirkulazioa erdiguinetik kentzea; eta bestetik, herrira sartzeko bide berria ere izango da. Gaur egungo sarrera arriskutsua da, eta egiten ari diren lanek arazo hori konpontuko dute. /AINTZANE IRIZAR

BERGARA

1960ko hamarkadan euskara irakatsi zutenei omenaldia egingo diete

Bihar, zapatua, Euskaren Eguneko ekitaldien barruan, 1960ko hamarkadan Bergaran euskara ikasten aritu ziren hamaika emakume omenduko dituzte. Hain zuzen ere, euskararen irakaskuntzan aitzindari izan ziren Pilare Muxika, Maite Agirrebeña, Izaskun Jimeno, Edurne Artzelus, Lide Muxika, Maria Victoria Arizmendi, Lupe Olabarria, Mariasun Lete, Amaia Azkargorta, Pili Fernandez eta Kontxita Maiztegi zena izango dira omendutakoak. 1960ko hamarkadaren bukaeran Colegio Santa Infancian (Bidekurutzetan eta Mizpildin), Koldo Eleizalde ikastolan (Komenio kalean) eta Frontoiko eskolan ibilitakoak dira denak.

HERRI BAZKARIA ARTATSEN

Jardunek, AEK-k eta EHEk programa zabala prestatu dute zapaturako. Eguerdiko omenaldiaren ondoren, hainbat herritarrek euskararekin hartu

dituzten konpromisoen berri emango dute, Muni-be plazan. Azkaiter Peloxek alaituko du ekitaldia. Ondoren, Euskararen Eguna ospatzeko herri bazkaria izango da Artatse elkartean, eta bertsolariak eta trikitilariak izango dira. Txartelak Jardun elkartean, Errotalde jauregian eskura daitezke. Gauean kontzertua izango da gaztetxean: Berako Sexty Sexers eta Hondarribiko Kabul taldeek joko dute.

Gaur, egubakoitza, gauean, antzerki emanaldiak izango dira Pol-Polen eta Oilagorran. /E.M.

Zertzelada

Hainbat herritarrek euskararekin hartu dituzten konpromisoen berri emango dute zapatu eguerdian, Muni-be plazan

ARRASATE


Bihar hasita, zapatua, martitzenera arte, akordeoi doinuak herrian

Besteak beste, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa eta Nazioarteko Lehiaketa jokatu dituzte bihartik aurrera Arrasaten.

Nazioarteko Lehiaketari dagokionez, 21 lehiakidek parte hartuko dute, jatorri askotakoak: Euskal Herria, Finlandia, Frantzia, Bielorrusia eta Ukraina, besteak beste.

Gipuzkoako Lehiaketan, berriz, 25 lagun lehiatuko dira; jakina, gipuzkoarrak dira guztiak.

Lehiaketez gainera, akordeoi kontzertuak eta jaialdia ere izango dira Arrasaten. Jaialdian, esaterako, 250 gaztek jardungo dute, zapatuan eta domekan Amaia Udál Antzokian eta Arizmendi Ikastolan. /U.M.



GOIENKARIA

Akordeoilari ugari etorriko dira Arrasatera; iaz ere hala izan zen.

ARETXABALETA

Gabonetako opor egunetarako Aste Gaztea antolatu du gaztelekuak

Gertu dauka abendurako egitaraua Aretxabaletako gazte lekuak. Gaur, egubakoitza, lasaitasun txokoa izango dute, hau da, etxerako lanak edo jolasak egiteko aukera. Bihar, zapatua, larria lantzeko tailerra jarriko dute, eta domekan, beldurrezko rol jokoekin jardungo dute.

Abenduaren 26tik urtarriaren 4ra bitarteko, Aste Gaztea antolatu dute. Goiz eta arratsalde elkartuko dira ekintzak egiteko; tartean, irteera Gasteizko izotz pista, futbito txapelketa eta bazkaria, urteari agur esateko. /M.A.

ESKORIATZA

Abenduaren 26an inauguratuko dute gaztelekua pilotalekuan

Udalak erabaki zuen 12 eta 16 urte bitarteko gazteen-dako zerbitzu bat sortzea, eta dagoeneko badabilten pilotalekuko lokaletan lanak egiten.

Udaleko Gazteria Sailak erabaki du, hasieran behintzat, zerbitzua egubakoitzetik domekara bitartean ematea.

Gaztelekuan telebista, DVDa, musika entzuteko aparatua, mahai-futbola... izango dira.

Bestalde, hilaren 15ean berbaldia egingo dute kultura etxean, 18:30ean, gaztelekuek zelan funtzionatuko duen azaltzeko. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Gainontzeko herrietan moduan, garraio publikoa edukitzeko eskaera

Arazoa zaharra da, baina konponbidea ez da oraindik heldu. Horregatik, Leintz Gatzagako Garraioaren Komisioko kide Rosa Urretak garraio publikoaren gainean dituzten eskaerak gogora ekarri ditu.

Gutxienez bi orduko autobusak Gatzagatik pasatzea gura dute. Urretaren ustetan, borondatea da falta dena Arlabanen istripuak edo lanak egin dituztenean, autobusak handik igaro izan direlako. Egoera horrek behartzen du etxe bakoitzean bi edo hiru automobil behar izatea. /X.U.

Lanpostuak gordetzeko ekimena bultzatu gura dute Fagorren, eta langileak ekin-tzaile izateko ekimena abiarazi gura dute. Organoen oniritzia jaso du egitasmoak, eta zehazki zertan datzan azaldu digu Pili Iriartek.

OIHANA ELORTZA

Intraekintzailletza Egitasmoa aurkeztu duzue Fagorren lanpostuak gordetzeko. Zertan datza egitasmo hori?

Egitasmo horrek langileen aukerak zabaldu gura ditu enpresa barruan. Lan hori prozesu zehatz baten bidez egin daitekeela proposatzen du, gainera: sortze eta ekarpen prozesuaren bitartez. Horren adibide bat da enpresa proposamenak egitea, besteak beste.

Ze helburu du egitasmo horrek?

Lanpostuak sortzea. Horixe da Intraekintzailletza Egitasmoaren helburu nagusia, labor esanda.

Lehen esan bezala, hainbat enpresa ekimen berri eta ekintza ezberdinak aurkeztuta eta burututa lor daiteke lanpostuak sortzea.

Nola egingo duzue hori? Zeintzuk dira proiektu horren ezaugarriak?

Batetik ikusi behar da enpresan ze potentzial dagoen eta bestetik ze iniziatiba propio dauden. Gara daitezkeen potentziala eta iniziatibak batu behar dira.

Ikusi behar da ze ideia, ze proiektu dauden. Egonez gero, Saiolan prest egongo da Intraekintzailletza Egitasmoa martxan jartzeko. Proiektu horiek etorkizuna izango dutela ikusten badute eta bideragarria izan daitekeela uste badute, lanean hasiko dira proiektu hori aurrera ateratzeko.

Saiolandik dator, beraz, egitasmo horren aukera?

Bai. Orain arte, kanpotik ekarri dituzte enpresak, iniziatiba berriak bultzatzeko egin behar diren azterketak egiteko. Gainera, zenbat eta izen ponpoxoagoa eduki enpresa horrek, badirudi orduan eta irtenbide hobeak edo gehiago eman behar dizkigutela. Eta hori ez da horrela. Egitasmo hori Saiolanek aurkeztutakoa da eta asmoa dute proba egiteko Ikerlanen eta Fagor Etxetresnetan. Fagor etxetresnetan, gainera, oso pozik gaude proiektu horrekin, batez ere kontuan izanda momentu honetan bizi dugun egoera latza; egoera honetan, ongi etorria da edozein ideia berri.

Noraino heltzen da egoera?

Globalizazioak ekarri du lan asko beste herrialde batzuetara bidaltzea, merkeagoa delako han egitea hemen baino. Horren inguruan dabil gaurko merkatua. Oso merkatu bortitza da, lehiakorra, eta oso zaila da merkatu horretan lehiatzea. Egia esan, une honetan oso egoera zailan gaude, larritzeko modukoan.

Txinaren mehatxuaz gain, badaude egoera okertzen duten beste faktore batzuk ere?

Egia esan, gaur egun dena da mehatxua: Korea, Ekialdeko herriak, Txina... Soldata txikiak eta lan egin dezaketen balio erantsi txikiko edozein herrialde dira mehatxua gaur egun.

Horrek ekarri du egungo egoera?

Uste dut globalizazioak ekarri duela hori guztia, globalizazioak eta merkatuak zabaltzeak. Inork ez zuen pentsatzen horrek ekarriko zuena, eta uste dut hasiera baino ez dela.

Denok pentsatzen genuen merkatuak zabaltzearekin batera toki guztietara iri-



O.E.

Pili Iriarte

FAGOR ETXETRESNAK

“Inork ez zuen ikusi globalizazioaren eta merkatuak zabaltzearen beste aldea”

INTRAEKINTZAILETZA EGITASMOA

“Proiektu edo ideia berri bat duen edonork bere iniziatiba aurkez dezake 2006ko otsaila bitartean, eta bideragarria bada, ekimen hori aurrera eramaten lagunduko diote”

KOOPERATIBAREN BALIOAK

“Kanpoko herrialdeetan ez dakite kooperatiba zer den eta zaila da dituen balioak ezartzea; hemen, ordea, kooperatiba ezagutu arren, balioak krisian daudela uste dut”

tsiko ginela, baina denok iristen gara leku guztietara, baita txinatarrak hona ere, jakina.

Duela gutxi irakurri diot Catania-ri MCCk duen tamainari begira ez dagoela horren ziur kooperatiba modelo-aren jarraipena eraginkorra den edo ez. Zer uste duzu zuk?

Uste dut kooperatibaren balioak ez direla aplikatu ahal izango ez Poloniaz ezta Marokon ere. Hemen bertan ere krisian daude balio horiek, nire ustetan.

Zergatik?

Kanpoko herrialdeetan, esaterako, ikusi dute Fagorren etorrera beste edozein enpresa izango balitz bezala. Badakite ez dela multinazional moduan joan, baina ez dute kooperatiba zentzua ulertzen, kooperatiba zer den ez dakite eta. Mundukidengarri nago ni eta kanpotik datozenak harrituta gelditzen dira kooperatibaren funtzionamenduari.

Hemen, berriz, aldaketak izan dira. Adibidez, bazkide bakoitzak bere botoa izatea

oso balio ona da, baina jende gazteak, esaterako, ez dio horrenbesteko baliorik ematen asanbladari eta balio horiei. Aldatu egin dira gauzak.

Balioei lotuta, Ahots Kooperatibista izeneko talde bat ere badago.

Bai, bere iritzia duen talde bat da, korronte bat.

Astean egin du Fagorrek Euskararen Eguna. Ze jasotzen du Fagorko euskara planak?

Fagorrek konpromiso handia du euskararekin, oraindik egiteko asko dagoen arren, jakina.

Euskara plana hainbat enpresa edo negoziotan aplikatu da. Euskaraz jartzen dituzte kartelak eta aktak, besteak beste. Bilerak eta bestelako hitzorduak ere euskaraz eta espainolez egiten dituzte. Langileendako ikastaroak ere izaten dira, euskara ikasteko. Hitz egiteko zein idazteko baliabide guztiak jartzen dituzte. Arazo bat dago, ordea: gazteek eta nagusiek badakite euskaraz hitz egiten, baina erdian gelditzen garenok arazo gehiago ditugu, ez atzera ez aurrera gelditu gara. Hala ere, oso garrantzitsua da euskararen erabilerrak izan duen garapena.

Euskararekiko konpromiso sendo eta indartsua du Fagorrek, eta aurrerantzean ere jarraitu egingo dute bai balorazioak egiten eta baita negozio berrietan ere aplikatzen.

Hasierako gaira bueltatuz, nork aprobetxa dezake egitasmo horren eskaintza?

Gura duen guztiak. Edonori dago zabaldua egitasmo hori. Egitasmoari etekina ateratzeko ez da derrigorrezkoa bazkide izatea: ikasketak bukatu berri duenak, bekadunak edo aldi baterako dagoen langileak ere aprobetxa dezake egitasmo horren eskaintza.

Berez, iniziatiba duen edonork aurkez dezake proiektua.

Zein da hurrengo pausoa?

Proiektua Kontseilu Orokorrean dago eta Fagor Etxetresnetako sail iraunkorrean ere hitz eginda daude. Denei gustatu zaie eta maila guztietan erakutsi dute aldeko jarrera. Gaur egun dugun egoera zailen aurrean hartzen dira gehiago kontuan, agian, horrelako egitasmoak, eta ziur nago aurrera aterako dela.

Egoera zail horri erantzuteko sortu da propio egitasmoa?

Ez. Saiolanek 20 urte daramatza lanean eta esperientzia askotan hartu du parte. Momentu txarretan hobeto hartzen dira antzerako egitasmoak une onetan baino, baina ez du zerikusirik.

Proiektuak eta ideiak aurkezteko eperik badago?

Saiolangoak ideiak jasotzeko prest daude beti, eta gura duenak dagoeneko aurkez dezake bere ideia.

Gainera, ideia eta proiektu berriak edonolakoak izan daitezke. Izan daiteke enpresaren jardunarekin lotura duen iniziatiba bat, baina ez du zertan izan horrelakoa. Esate baterako, norbaitek izan badu etxeko olio birziklatzeko sistema bat martxan jartzeko ideia, lasai asko aurkez dezake.

Proiektu bat aurkezteko interesa duen edonork Kontseilu Sozialeko edozein kide-ri aurkez diezaioke bere ideia. Badago epe bat: 2006ko otsaila.

Bestela, ze plan ditu Fagor Etxetresnak datorren urterako?

Ez dakit, egia esan. Garbigailuen sailan egiten dut nik lan, eta esperantza handiak ditut laster merkaturatuko duten garbigailu berriarekin.

Nolakoa da garbigailu hori?

Diseinu berezia du eta uste dut ondo merkaturatuko dela, erantzun ona izango duela. Ea egia den, guk ere dena behar-ko dugu-eta.

Gutunak

Udaleko Gobernu Batzordeak Oñatiko herritarrei

Ez da ohikoa Gobernu Batzorde honek erakunde izaerako adierazpenak egitea, komunikabideetatik jaurtita edo herrian batetik bestera dabiltzan berriei buruz; izan ere, bere egitekoa lanean jarraitzea dela uste izan du beti, ahal dela eztabaidetan sartu gabe... Nola-nahi ere, une honetan Gaztetxearen gaiari buruzko hainbat berri zabaltzen ari dela ikusita, nahasgarriak direnak, batzuetan gezurrak, batzuk intentzio osoz zabaldutakoak desgaste politikoa eragin nahian baina ez arazoa konpon-tzen laguntzeko asmoarekin, esan beza-la, une honetan beharrezkoa ikusi dugu adierazpen hau egitea gure jokabidea-ren berri emateko.

Gure akatsak onartzeko arazorik ez dugu eta badakigu gure gestioa, edozei-nena bezalaxe, beti hobetu daitekeela, bai-na ezin dugu onartu manipulazio edo hipokresia akusaziorik hain serioa den gai batean, are gutxiago hori bota due-na beti arazo honi konponbidea aurki-tzeko bilguneetatik kanpo egon bada.

Prentsaurrekotara deitzea edo komu-nikatuak bidaltzea erraza da, hori pape-ra baino ez baita eta paperean gauzak jar-tzea erraza da, baina hipokresia hain jux-tu era horretako jarreretatik ondorioztatzen da, alegia, ezer egin ez eta gatazkari haize eman eta ondo edo gaiz-ki lanean ari direnak iraintzetik.

Ez da politikoki jolas egiteko gaia gaz-te-kolektibo batez hitz egitea, are gutxia-go nagusiki 14-16 urte bitartekoak badi-ra, euren ekimenak garatzeko asmoare-kin hasita, prozesu guztian zehar beste pertsona batzuen esanetara jardun dute-nak; gainera Gaztelekuaren bilakaera-tik kanpo egon diren pertsonak dira horietako batzuk, gaztetxoek baino urte batzuk gehixeago daukatenak (22-23 urte) eta bai lehen eta bai orain, beraien inte-resak inposatu nahian ari direnak; gai-nera tartean izaera politikoa dutenak ere sumatzen dira.

Gatazka orain urtebete inguru sortu zen, Gaztelekuan gehiegizko kontsumo-ak ari zirela gertatzen eta ezarritako ordutegiak ere ez zirela errespetatzen iku-sita. Udalak horren aurrean hitz egitea-ri ekin zion bai Gaztelekuko arduradu-naren bitartez eta bai Gaztedi Batzorde-an ere, une hartan gazteen kexa nagusia zena konpondu nahian, alegia ordutegiari buruzkoa.

Prozesu horretan ari ginela (2005eko martxoa), “Oñatiko Gazte Asanblada”-ren izenean ari zela zioen gazte talde batek bilera bat eskatu zuen eta bertan adie-razi zuen Gaztelekuarekin ez zutela ezer jakin nahi, Udalak kontrolatutako tokia delako, Arduradun bat izaterik ez zute-la nahi, zapaltzailerik ez zutela nahi,

beraiek bakarrik nahi zutela gestioa eramatea eta Gaztelekuko giltzak esku-ratzea baino ez zutela nahi.

Begi bistakoa denez, azaldutako ter-minotan ez zen proposamena onartu; izan ere, Gaztelekuan jarraitzekotan gutxieneko erantzukizuna eskatu zitzaien : adin txikikoei alkoholik ez sal-tzeko araua errespetatzea (kolektibo honetako %80 da adin txikikoa) eta ordu-tegiarekin lotutako aspektu batzuk erres-petatzea. Orduan, Udalak lokal bat beraiei emateko eskatu zuten, baina erantzun zitzaien horretarako antola-kuntza bat eratu behar zutela, elkarte bat... non lehen aipatutako konpromi-soak onartu behar zituzten; hala, eredia aurkezteko esan zitzaien. Bileran zehar, era guztietako konpromisoen aurka agertu ziren, eredu hori elkarrekin egi-ten hastearen aurka ere bai.

Uztaila bitartean sei bilera egin geni-tuen, aldi bakoitzean gaztetxoenen ordezkari ezberdinekin nahiz eta beti adin gehiagoko ordezkari batez lagun-duta. Akordioan aurrerabiderik ez zego-en eta uztaillean, Plazako kanpaldiaren ondoren, eraikin pribatu baten lehen okupazioa egin zuten, Ertzaintzak desa-lojatu zuena (gogorarazi beharrekoa da, Alkateak eragotzi zuela okupa talde bat atxilotzea arduradun gisa agertuz); azke-nik, abuztuaren lehen astean Kasa-blankako eraikina okupatu zuten.

Eraikinaren segurtasun faltagatik ezin zela berreraiki eta erabilera iraun-korrik ezin zitzaiola eman eta hura oku-patu zen unean bertan bota behar zela uste zuenik izan da, nahiz eta azkenean epe bat jartzea erabaki zen. Irailaren 15eko Gobernu Batzordean behera bota-tzeko erabakia hartu ondoren (ikus akta), Oñatiko Gazte Asanbladako orde-zkariet jakinarazi zitzaien eta beste lau bilera egin ziren beraiekin irtenbideak aurkitu nahian aurrera egiteko, nahiz batzuek horregatik ere hipokrita deitu diguten.

Horren parean, auzokoen idatzizko kexak jasotzen egon gara (20 familiatik gora). Azkenean eraikina botatzea era-baki zenean, aurre-abisua ematearen komenigarritasunaz eztabaidatu zen, Alkateak hitza emanda zuela eta bete egin nahi baitzuen; hala ere, amore eman behar izan zuen, han desalojoari eragozpenak jarriko zitzaizkiola eta isti-luak gertatuko ziren beldur, eta ez zen atxilotetarik nahi; hori bera gertatu baita orain gutxi Donostiako Egia auzo-an oso antzerako egoera batean.

Azken boladako gertaerek, mani-festazioek eta Ertzaintzarekin izanda-ko istiluek, normala denez, gaztetxo hauen guraso batzuk kezkatu egin dituz-te, bat gatoz geu ere soluziobideak aur-kitu nahi horretan. Beraiekin elkarla-nean jardun nahi dugu, gure boronda-tea onartzen bazaigu behinik behin, eta aldi berean gazteekin bilerak egiten jarraituko dugu, baina oraingo honetan, Oñatiko Udalean parte hartzen duten

gainontzeko alderdien ordezkarien pre-sentzia exijituz.

Zehazki esanda, Oñatiko Udalaren Gobernu Batzordeak garbi azaldu nahi du bere jarrera: beti onartu du eta onar-tzen jarraituko du autogestioan oina-rritutako proiektuak aurrera eramatea, zalantzarik gabe, Taldearen berezko erantzukizunak bere gain hartzea exi-jitzen duen autogestioa, alegia, finan-tziazioa, funtzionamendurako arauak ezarri beharra, kontsumoei, eta abarri buruzko arauak errespetatu beharra e.a. (udalen gainerik dauden arauak izan arren, udalek zaindu eta betearazi beha-rrekoak).

Hauxe izan da uneoro Udalaren pro-posamena, eta erabat agertu da edozein okupazioren aurka, baina hori bezala-xe, okasio guztietan eskaini die gazteei beraiek antolatutako ekimenen finan-tziazioa (kontzertuak, Gazte Eguna e.a.), eurentzat bakarrik izan edo denentzat irekiak izan, dirulaguntza horiekin euren autogestio-proiektuaren bidera-garritasun ekonomikoari laguntzeko.

Proposamen honi eutsi egiten diogu eta uste dugu Oñatiko Gazte Asanbla-daren *Gaztetxearen Erabilera eta Fun-tzionamendu Irizpideak* deituriko doku-mentuan jasotako planteamenduak izan dezakeela tokirik bertan; bide batez esan, hortik eta hemendik esan den arren Udalak ez duela aipatu doku-mentua atzera bota, garbi gera dadila .

Aipatu dokumentuaren alderik esan-guratsuenak, bestalde, gai hauen ingu-rukoak dira: Gazte Asanbladak berak bilatuko dituela diru iturriak, gehienez gauerdiraino irekita errespetatuko due-la ordutegia, ez diela alcoholdun edari-rik aterako 18 urtetik beherakoei, barra-zerbitzurako 18 urtetik gorako gazteak ziurtatuko dituela, lokalaren garbita-sunaz arduratuko dela eta erregistro sis-tema baten bidez giltzen lagapena kon-trolatuko duela.

Azaroaren 15ean Oñatiko Gazte Asan-bladako ordezkariekin izandako bilera batean, azkenik, ezer ez dutela onartzen esan dute eta berriro esan dute nahi duten gauza bakarra honakoa dela: Gaz-telekuan soto deitzen den gunea eman die-zauela Udalak inolako konpromisorik gabe eta hori ezin da onartu; izan ere edo-zein antolakuntzak, nahiz kideak gazte-ak izan, dagokien erantzukizuna euren gain hartu beharra baitaukate.

Azkenik, bereziki azpimarratu nahi dugu gai honek albo batera utzi behar duela edozein interes politiko oportu-nista eta konponbidea duen gaia izanik merezi duela alde bakoitzak dagozkion gutxieneko konpromisoak hartu eta kon-pontzea.

Hala izan dadin lanean jarraituko dugu eta prest gaude bide horretan, hel-buru bera duten eragile guztiekin elkar-lanean aritzeko.

GOBERNU BATZORDEA
Oñati

Euskal naziotasuna

Denbora dezente igaro da 125.000 eus-kal herritarrek beren sinadurarekin Euskal Herriko lehen instituzio naziona-la den Udalbiltzari, herritarron naziotasuna jasoko zuen agiri ofizial bat abian jar zezan eskatu ziotenetik. Ordundik hona, milaka euskal herritarrek EHNA tramitatzeko aukera izan dugu Euskal Herriko hainbat udaletxetan, Udalbiltzako hautetsien esku-tik. Bergaran, 900 EHNA tramitatu dira.

EHNA egitean honako aitormen hau egiten dugu: “Ni Euskal Herritarra naiz eta Euskal Naziotasunaren jabe naiz. Oharmen, nahimen eta erabakimendu osoz, Euskal Herriaren bizi partaide naiz, eta guztiz aintzakotzat hartzen dut Eus-kal Herriaren berezko izatea, eta beregain bizitzeko borondatea, egungoa eta etor-kizunekoa.” Hona beraz aukera. Euskal Herritarrak gara! Ez gara beste nazioe-tako herritarrak baino gehiago, ez eta gutxiago ere. Beste edozein herrietako herritarrak bezala, gure naziotasuna, Udalbiltzak abian jarri duen agiriaren bidez, onartua ikusten dugu. Izan ere, EHNA tresna eraginkorra izateko sortua izan da, eta gu guztion esku dago hala iza-tea. Beraz, beharrezkoa da EHNA erabil dezagun gure bizitzaren ahalik eta espa-rru gehienetan (banketxeetan, komer-tzioetan, eskaerak luzatzeko garaian, e.a.). Jakin ezazue, Naziotasun agiria egi-teko aukera eskura duzuela, dinamika honek ez baitu amaierarik. Arkatzak zorrozteko garaia da! Lotu hadi borrokara!

Guztion artean, Euskal Herriaren alde, lan polit bat egin dezakegulakoan gaude. Bide horretan elkar ikusiko gare-lakoan, jaso ezazu agur bero bat.

BAI EUSKAL HERRIARI EKIMENA
Bergara

‘Gordo’-aren kontua

Igez Euskal Herrian 29.000 milioitik gora pezeta jokatu ziran *El Gordo* lote-rian. Sari nagusietan 250 milioi pezeta jaso ziran Euskal Herrian. Espainiar estatuak 128.000 milioi pezeta garbi ira-bazi ebazan estatuan *El Gordo* loteriaz.

IÑAKI ERRASTI
Aretxabaleta

Zuzenketa

Hilaren 25ean emakumeenganako tratu txarren aurkako kontzentrazioa egin zen Arrasaten. Joan den asteko Agenda atalean aipatutako ELA, LAB eta CCOO, UGT sindikatu-
ez gain, ESK ere aritu zen antolaketa lanetan.

PRESTA ZAITEZ ARRAINDEGI HOBERENEKIN GOZATZEKO




Laster **Bergara-n**

**SUPER
AMARA**

SUPER AMARA • San Lorentzo Poligonoa • Amillaga Kalea 18 • Bergara

**Joko didaktikoak
eta Olentzero bilduma
Ikastolen Elkarteko txokoan**



T-Kinato puzzleak



Mixi Baserrian



Olentzero New Yorken



Folk-Loreak puzzleak



Martzela Ehunzangoa



Gure Baserria



Hau eta gehiago, Ikastolen Elkarteko dendan.
Bisita ezazu gure web orria:
www.bieikastola.net/megadenda/biedenda.html

**Egin zure
eskaria!**

Aoiz Plaza 1-4
48015 Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 94 435 43 40
Faxa.: 94 435 43 41
Posta.: bie@ikastola.net



Erretratuan, Zaragozan egin zuten batuka erakustaldia.

MIGUEL DAZA

Batuka ikastaroak egingo dituzte Aretxabaletan

Abenduaren 11 baino lehenago eman beharko da izena

XABIER URTZELAI

Dagoeneko iritsi da Debagoienera dantza egiteko beste modu bat, batuka izena duena. Aretxabaletako kirol etxean antolatu dituzte batuka ikastaroak, eta Bixen Calzonek eman digu horren berri. Zer da, baina, batuka?

Kirola egiteko beste modu bat da batuka, dantza egiteko beste modu bat. Hala, aerobikaren ordeaz zer-bait berria probatu gura duenak

orain du horretarako aukera Aretxabaletan.

Dakigunez, dantza latindarretatik datorren estilo modukoa da: "Hemen telebista saio ezagun bati esker egin da famatu, eta batek baino gehiagok horrelakorik eskaintzeko asmorik ba ote geneukan galdetu zigun. Aretxabaletan aerobik egiten dutenei galdetu genien, nor-bait animatuko zen ikusteko, eta erantzun positiboa jaso genuen. Hala animatu gara ikastaroa antolatzera", esan digu Goienasporteko kide Bixen Calzonek.

Abenduaren 13an hasiko da ikastaro hori, baina abenduaren 11n amaituko da izena emateko epea. Hain zuzen, astean birritan emango dituzte eskolak: martitzenetan (17:45ean eta 18:45ean) eta egubakoitzetan (18:00etan eta 19:00etan). Gazte-batuka ere antolatu dute; izenak dioten moduan, gazteei zuzendutako eskolak dira. Gazteen saioak 45 minutukoak izango dira eta helduenak ordubetekoak. Informazio zabalagoa 943 71 26 28 telefono zenbakian.

Kirolabur

ERRUGBIA/BETERANOAK URUGUAIRA

Gaur iluntzean abiatuko dira Arrasateko Herensugeak talde beteteranoen 26 lagun Uruguaira, astebete pasatzera. Taldea 10. urterena ospatzen dabil, eta horixe izango da ekitaldi garrantzitsuenaren Turismoa egitearekin batera, Arrasatekoek Montevideoko bi talderen kontra lagunarteko norgehiagokak jokatu dituzte.

DEBAGOIENA/PREFERENTEA

Oraingo asteburuan ibarreko hiru taldeek jokatu dute etxean. Mondrak Berioeren kontra neurtuko ditu indarrak bihar, zapatua, Aretxabaletan (15:30). Aretxabaletak eta Aloña Mendik, berriz, domekan jokatu dute: Aretxabaletak Hondarribiaren kontra (16:30) eta oñatiarrek, berriz, Ordiziakoekin bisita izango dute.

TRIATLOIA/ANTXINTXIKI TALDEAREN OHARRA

Datorren urtean Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldearekin lehia-tu gura duenak dei dezala 660 52 95 16 telefono zenbakira, eta Aitorrengatik galdetu. Bestela, Antxintxikak gaur egingo duen batzar orokorrera joan dadila, 20:00etan, Arrasateko Musakolako kiroldegian.



GOIENKARIA

Urakun ere egiten dute triatloia.

Kirola ere, euskaraz

Kirola eguneroko bizimoduaren beste zati bat da, eta euskaraz ere egin daiteke


Jakinek da Euskal Herria hiru zatitan dagoela banatuta administrazioari dagokionez, eta, beraz, hizkuntza politika instituzional ezberdinak daudela. Gainera, bakoitza, bere baitan, ez da homogeneoa.

Euskararen normalizaziorako hainbat erronka daude, hala nola: administrazio eta osasun esparru euskaldunak; aginte eta zuzendaritza organoetan lan hizkuntza euskara izatea; enpreetan euskara planak finkatzea; etorkinak euskalduntzea; euskarazko kalitatezko hedabideak izatea; eta teknologia berriak euskalduntzea.

EGUNEROKO JARDUNEAN, EUSKARA

Erronka nagusienetakoen artean dago, dudarik gabe, eguneroko jardunean ere euskaraz egitea, familia eta gizarte harremanetan, esaterako.

Hezkuntzaren bidez euskara irakasten da, baina horrek ez du ziurtatzen euskararen erabilera gizartearen. Badago, ordea, beste esparru bat hezkuntzak betetzen ez duena: eguneroko bizimodua. Etxea eta lana ez ezik,



GOIENKARIA

Mankomunitateak kirolaren eta euskararen aldeko apustua egiten du.

Kirola Euskaraz beka zabalik dago

Euskara kirolean normalizatu nahi da

aisialdia ere eguneroko bizimoduaren zati bat da, eta horixe sartzen da kirola.

KIROLA ERE, EUSKARAZ

Kirola giza jardueraren naturala da eta eragin sozial handia du. Kirola gehiago euskalduntzeko, Kirola Euskaraz programa sortu zuten 1993an Debarroan. Helburua honakoa zen: kirolaren bidez ere euskararen normalizaziora heltzea. Horretarako, giza baliabideak, ekonomikoak, sentsibilizazio eta formazio alorrak eta kirol materiala sortzea bultzatu dituzte.

BEKA DEIALDIA

Debagoienerako Mankomunitateak bi beka atera ditu aurten ere, Kirola Euskaraz gaia hartuta, fitxa didaktikoak egiteko. Azaroaren 29an zabaldu zuten beka deialdia eta hauexek dira gaiak: pilates eta boleibola. Bestalde, joan den urtean emandako beken emaitzak Durangoko liburu eta disko azokan aurkeztuko dituzte abenduaren 7tik 11ra. Hirugarren adina eta aquagyma, euskaraz, dira gai horiek.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta SANYO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteen interes barik.



BERME 2 URTE
1.460
X
550
X
590 mm

B

HOZKAILUA 2FA255

255 € 42.428 pta **aspes**



BERME 2 URTE
1.850
X
598
X
590 mm

B

HOZKAILUA COMBI 2FAC495

375 € 62.394 pta **aspes**



BERME 2 URTE

B

ONTZI-GARBIGAILUA LEE-11

270 € 44.924 pta **edesa**



BERME 2 URTE

A+A

GARBIG. XF7 1407 DG

355 € 58.930 pta **NEW POL**



BERME 2 URTE

LABEA H2-1401BN BITROZERAMIKA VAP1400

B

LABEA eta BITROZERAMIKA

298 € 49.583 pta **aspes**



BERME 2 URTE

TELEBISTA THOMSON LCD 26" 26LB040S5

825 € 137.268 pta



BERME 2 URTE

TELEBISTA SANYO LCD 20" CE 20LC4

519 € 86.673 pta



BERME 2 URTE

TELEBISTA SANYO LCD 15" CE-ISLC4

369 € 61.396 pta




BERME 2 URTE

TELEBISTETAN ESKAINTZA BEREZIA

ERAKUSKETA ALDAKETA!

ETIKETA ENERGETIKOA



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Erregalu kaxak,
saskiak eta otarrak
prestatzen ditugu,
zuen bezero,
bisita,
lagun edo
famiakoei
opari eder bat egiteko.

Oparien osagaiak
aukeran libre uzten ditugu,
nahi duzuen produktuekin
osa ditzazuen.

Euskal Herriko
hainbat produktu
sartzeko aukera duzu
saski eta kaxetan.

Aurrekontua
zuen aukeraren arabera
prestatuko dizuegu.



Gatzagako otarrak

Zorionak eta urte berri on!

JAKION ETA LABIDEA / Tel. 943 71 46 86 / 943 71 47 92 / Faxa: 943 71 30 22 / e-postak: LABIDEA@telefonica.net / jakion@euskalnet.net



Bide-erakuslea aurkitu dut
nire etorkizunerako.

JUANITO OIARZABAL
ALPINISTA

Aurreikuspen / Pentsio Planak EUSKADIKO KUTXA

Etorkizunerako aholkularitza eta gainera opari bat.

Aholkulari pertsonal batek, zure beharrak eta egoera aztertu ondoren, plan ugariren artean ondoen datorkizuna aukeratzen lagunduko dizu, bide batez, onura fiskalik handiena lortu dezazun.

Euskadiko Kutxan etorkizuna argi baino argiago ikusten lagunduko dizugu.

Aurreikuspen / Pentsio Plan Klasikoa.
Aurreikuspen / Pentsio Plan Mistoa.
Aurreikuspen / Pentsio Plan Aldakorra.
Aurreikuspen Plan Monetarioa.
Aurreikuspen Plan Dinamikoa.
Garantizado I Aurreikuspen Plana.
Garantizado II Aurreikuspen Plana.

Eta gainera, urte bakoitzeko ekarpen guztiak kontuan hartuta, opari bat ere jaso dezakezu.

Euskadiko Pentsioak BGAE Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatearen Aurreikuspen Planak.



2.500 €
ERREMINTADUN
LINTERNA



2.500 €
ZUKUGAILUA



5.000 €
FRIJIGAILU ELEKTRIKOA



5.000 €
KABLERIK GABEKO
ZULATZEKO MAKINA



8.000 €
MAHAI TRESNAK



15.000 €
14"KO TELEBISTA

Zurekin elkarlanean



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko abenduaren 2a

Kultura
eta
aisialdia



Abenduaren
2tik 9ra

ZALETASUNAK

Geekek izan ohi dituzte gustuko: internet, blogak, zientzia-fikzio generoko filmak...

MALETA

Behar dituzten eta gustatzen zaizkien gadget edo tresnaz beteta: kableak, kamera, CDak...

ORDENAGAILUA

Geek gehienek informatikariak dira. Ordenagailua erabiltzen dute, ez bakarrik lanerako.

TELEFONOA

Geek askok poltsikoko telefono oso aurreratuak dituzte, azken belaunaldikoak.

GEEK-A NAIZ ETA HARRO NAGO

Teknologiaren eta ordenagailuen zale handiak dira, eta ez dute irudi topikoarekin zerikusirik.

KAMERA

Teknologia berriak gustatzen zaizkenez, geek askok kamera digitala daukate.

MP3-A

Esaten dute geek peto-peto batek marka jakin bateko MP3a izango duela. Ezetz asmatu zein?

CD-AK

Programak beste batzuekin trukatzeko, argazkiak eta musika beti aldean edukitzeko...

AURIKULARRAK

Ordenagailutik musika entzuteko edo telefono-programez ordenagailuz berba egiteko.

Teknologia bai, baina buruarekin

GEEK EDO ORDENAGAILUZAILE AMORRATUAREN IRUDIAK TOPIKO ASKO DITU. IBARREKO GEEK BATZUEKIN EGIAZTATU DUGU HORI

LEIRE KORTABARRIA

Geek hitza berri samarra da, baina ez irudia: hamaika filmetan ikusi dugu ordenagailu eta teknologia berrien zale amorratua, zaletasun bakar hori duena eta ia lagunik ere ez daukana. Hitza bera mesprezuzkoa izan da. Orain, ordea, teknologia-zaleek eurek esanahi berriz jantzi dute.

Geek hitzak ia irain kutsua izan du orain arte: teknologia eta ordenagailuenganako zaletasun izugarria eta horren gainean asko dakiena, bai, baina giza harremanetarako gaitasun txikia eta beste edozein arlotan oso trebea ez zena izendatzen zuen.

Orain, ordea, gauzak aldatu egin dira, eta geek askok euren buruari hala deitzen diote harrotasun handiz. Geeken pareko den beste hitz bat ere modan jarri da: teknosexuala. Anjel Lertxundik idatzi zuen moduan, “moda-modan egon nahi baduk, teknosexualena duk orain modernitatearen gailurra”.

Aldaketa hori gertatzen hasia denean entzuten hasi gara hitz hori Debagoienez, batez ere blogen moda areagotu den neurrian.

AISIALDIA, MODU DESBERDINEAN

Debagoieneko geekek ez dute euren burua hala aitortzeko inongo arazorik. Eurekin hitz egiterakoan ikusten da alde handia dagoela topikoaren eta errealtatearen artean. Era berean, ikusten da, geek izan edo ez izan, teknologia berriek eguneroko bizitza zeharo aldatu dutela.



LEIRE KORTABARRIA

Mutimedia.com-eko neska-mutilak: Uxue, Arkaitz, Jon eta Aitor.

Igor Leturia 34 urteko arrasatearra da, eta geek izatearen inguruko uste bat bertan behera utzi digu: “Teknologia, nire iritziz, ez da helburua, bitartekoa baizik, eta zerbaiterako balio didan teknologia bakarrik gustatzen zait”, esaten du. Geek on bezala, ordenagailua eta Internet asko erabiltzen ditu Igorrek —informatikaria da—, eta bloga dauka *Eibar.org* gunean, baina ez du poltsikoko telefono oso aurreraturik.

Hala ere, inoiz erabili izan du poltsikoko telefono moderno bat bloga eguneratzeko, argazki eta guzti. Beste gauza deigarri bat da bere ordenagailuetako bat telebista ikusteko egokitu duela, eta musika eta argazkiak ere hara pasatu dituela, eta horrela ekipo multimedia bikaina osatu: “Telebista eta bideo-grabatzaila, dia-

positiba proiektorea eta musika ekipoa, dena aparatu bakarrean eta urrutiko kontrol batekin”, dio. Asko aldatu dira ohiturak, bai, geek eta teknosexualendako!

“OSO-OSO SOZIALAK GARA”

Teknologia berriei informazio eguneratuena dute geek-ek, eta berau lortzen saiatzen dira. Ase-ezineko jakin-min sanoa da euren beste ezaugarri bat; gero, aurkitutakoa jakinarazi egiten dute. Horretarako adiskide ezin hobea dute bloga.

Eta horixe, “gauza kuriosoak munduarekin konpartitzea”, da Arrasateko Eskola Politekniko-ko lau ikasle ohien helburua *Mutimedia.com* blogarekin. Arkaitz, Aitor, Uxue eta Jon dira, Arrasaten ezagutu zuten elkar eta joan den uztaila ezkerro blog



LEIRE KORTABARRIA

Igor Leturia informatikari arrasatearra.

hori dute. Geekaren ezaugarri asko dituzte: informatikariak dira, berritasunen zale handiak... Aparailu berriak gustuko dituzte eta eduki, badauzkate batzuk ere. Jakin-mina Interneten bidez asetzen dute: “Interneten gauzak bilatzen, deskargatzen eta probatzen ibiltzen naiz sarri”, dio Jonek. Blogs & Beers, Euskal Party eta halako informatika-

zale bilguneetara joatea gustatzen zaiela ere onartu digute.

Hala ere, estilo askotako lagunak dituzte, zientzia-fikziozko filmak ez dira euren gogokoenak, bideo-jokoak alboratuta dituzte, parranda on bat gustatzen zaie —“oso, baina oso sozialak gara”, esaten dute, barrez... Arkaitzek laburbiltzen duen moduan, “beste zaletasun bat da bakarrik”.


Geek ‘perfektua’

- Gizonezkoa, 20-30 urte bitartekoa. Informatika ikaslea edo arlo horretan lan egiten duena.
- Blog egile eta irakurlea da, eta beste geek batzuk modu horretara ezagutzen ditu.
- Aparailu, programa... berriak ezagutzen ditu eta dauka. Askok eskuko telefono oso modernoak dituzte.
- Jendeak ikusten du harreman sozial txikiko pertsona moduan, baina irudi hori neurritz kanpokoa da.
- Internet erabiltzen du telebista baino gehiago. Beste aukera bat: telebista Internetez ikusten du.
- Teknologia berrien gaineko azken informazioa du eta berritasunak bilatzen ditu. Jakin-min handia dauka.
- Informazioa topatzen lehena izaten saiatzen da, eta besteei jakinarazten.

Filmak, liburuak...

Zientzia-fikzio eta fantasia generoa bereziki gustatzen zaie geek askori. Horren barne, entretenimendurako produktuak edo kutsu intelektualagoa dutenak: *La Guerra de las Galaxias*, *Blade Runner*, *Gattaca*, *Matrix*, *Tron*, *12 monos*, *El Señor de los Anillos*... dira faborito batzuk.

Gauza bera gertatzen da liburuekin: *1984*, *Un mundo feliz*, *Microsiervos*, *Yo, robot*...



La Guerra de las Galaxias filma.

Oñatiko b.h. institutua
zuazela-larraña
S. Lorentzo z/g - aita madina z/g tel.: 943782150-943781268

KALITATEA HEZKUNTZAN

LANGILEENTZAKO IKASTAROAK OÑATIN

%100 SUBENTZIONATUAK

KURTSOA	ORDUAK	DATA	ORDUTEGIA
SEGURTASUNA			
Segurtasuna industriar	40	2006/01/09 – 2006/02/02	16:00-18:30
DISEINUA – MEKANIZAZIOA - CNC			
-Planoen irakurketa	50	2006/01/09 – 2006/02/09	17:00-19:30
-Torno konbentzionala	80	2006/02/13 – 2006/03/20	17:00-20:30
-Torno programazioa C.N.C. 8050/55	40	2006/01/09 – 2006/02/02	17:00-19:30
-Torno prestaketa eta Programazioa C.N.C. 8050/55	40	2006/02/06 – 2006/03/08	17:00-19:30
-Mekanizazioa torno C.N.C. 8050/8055	50	2006/03/13 – 2006/04/13	17:00-19:30

Izena emateko: Oñatiko Institutua, Larrañako Lanbide Heziketa Egoitza, San Lorentzo auzoa z/g 943 78 21 50
09:00-13:00 / 15:00-17:00
www.onati.net

IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK
Ikastaroak astelehenetik ostegunera izango dira

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA HEZKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

HOBETUZ
Lanbide Heziketa (Larraz) proiektuaren
Europako Batasuna
Europako Gizarte Fondoa

ZARZUELA/ 'BASERRIA' ANTZEZTUKO DU IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOAK

Zarzuela, lehenengo aldiz euskaraz

JESUS GURIDIREN 'EL CASERÍO' ITZULI ETA EGOKITU DU ELKARTEAK, ETA HILAREN 10EAN ESTREINATUKO DU. SARRERAK SALGAI DAUDE

LEIRE KORTABARRIA

Lehenengo aldiz euskarazko zarzuela batez gozatzeko aukera dugu, eta hori Arrasaten izango da, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik, abenduaren 10ean, 11n, 16an eta 17an. *Baserría* zarzuela antzeztuko dute, eta sarrerak salgai daude abenduaren 17ra arte Amaia antzokian.

Euskal Herrian inoizko euskara hutsezko lehen zarzuela egingo du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. Jesus Guridi maisuaren *El Caserío* lana itzuli du taldeko kide batek, Naroa Elortzak, eta *Baserría* izenburuarekin taularatuko dute abenduaren 10ean, 11n eta 16an 19:30ean, eta 17an, 19:00etan.

Sarrerak salgai ipini zituzten atzo, abenduak 1, antzokian, eta hilaren 17ra bitartean dago erosteko aukera —bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izan ezik—, 18:00etatik 20:30era bitarteko ordutegian.



ARRASATE PRESS

Izaskun Murgia elkarteak sortu aurretik, Arrasateko dantzariak *El Caserío* antzeztu zuten, jatorrizko bertsioan.

EZ DA ITZULPEN SOILA

Izaskun Murgia elkarteak 2000. urteaz geroztik antzezten du zarzuela bat abenduan baina aurtengoa oso berezia izango da. Has-

teko, lehenengo aldiz antzeztuko dute zarzuela bat euskara hutsean; baina itzultzaileak, Naroa Elortzak, beste zer bait egokitu du: "*El Caserío*-k euskaldunon iru-

diaren parodia egiten zuen: beti dantzari jantziekin agertzen ziren, espainolez berba egiten zuten modua ere barregarria zen... *Baserría* askoz lan serioa-

goa da, alde horretatik. Jantziak berak 1920. urtekoak bezalakoak dira", dio Elortzak.

Tere Gonzalezek, elkarteko buruak eta kantu zuzendariak, esaten du zarzuela hori "erronka handiagoa" dela: "Espainolez entzutera ohituta gaude, eta hitz batzuk euskaraz irteten ez zaizkizunean, espainolez irteten zaizkizu. Bestalde, konplikatu da, musika espainoleko bertsiorako eginda dagoelako. Musika aldetik, oso lan konplexua da. Hala ere, oso pozik nabil lanean".

Orkestra zuzendaria berria da, Alberto Saez mirandarra. Hark euskaraz ez jakitea ere erronka izango da.

Orain arte ikusleek bikain hartu dituzte Izaskun Murgia elkartearen antzezpene guztiak, eta 50eko hamarkadan Arrasatek izan zuen zarzuela tradizioa berpiztu egin da. Euskarazko lehen zarzuela horrek ere arrakasta izatea espero dute elkartekoek.

Astelehenko Goienkariko bi irakurle Karibera!

Adi!
Abenduaren 19an,
Astelehenko
Goienkaria-ko
harpidedun
batek **bi lagunendako**
Karibera bidaia
zoragarria
irabaziko du.

Egin zaitez *Astelehenko Goienkaria*-ko harpidedun.

36 euro bakarrik ordaindu eta etxean jasoko duzu 2006 bukaera arte.

Gainera, **sari paregabeak** eskuratzeko aukera izango duzu.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Laguntzailea:

VIAJES IBERIA

Abenduak 2-7

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

IKASTAROAK

BERGARA

► **Hasierako klown ikastaroa** emango du Oihulari Klown taldeak abenduaren 3an eta 4an, baserri baten. Argibideak eta izenematea, 607 20 45 03 telefono zenbakian.

► **Hika ikastaroa** antolatu du Jardun euskara elkarteak. Abenduaren 12, 13, 14 eta 15ean, eta 19, 20, 21 eta 22an emango ditu eskolak Juan Martin Elexpburuk. Kultura etxean izango da, 19:00etatik 21:00etara. Matrikula 25 euro da. Izena emateko edo argibide gehiago jasotzeko, joan Jardunen bulegora edo deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

► **Gehixago eta Hobeto** programaren barne, Udal Euskara Zerbitzuak, Udal Euskaltegiak eta herriko ikastetxeek euskara maila hobetzeko ikastaroa antolatu dute. Eguneroko egoeretan, berba egiterakoan egiten diren akatsik ohikoenak zuzentzeko ariketak egingo dituzte ikastetxeetan, eta gurasoek horren berri jasoko dute. Horrez gain, helduendako ikastaroak ere antolatu dituzte. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 91 31 telefonora.

► **Euskarazko jolas, kantu eta ipuinak** ikasteko 16 orduko tailerra antolatu du Udal Euskara Batzordeak. Astelehen eta eguenetan, 15:00-16:30 edo 18:30-20:00, eta zapatuetan, 10:00-12:00, izango dira eskolak. Abenduaren 15era bitartean dago izena emateko aukera udaletxean.

ESKORIATZA

► **Internet bidez etxetik erosteko** ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 11:00etatik 13:00etara bitartean.

► **Gabonetako sukaldaritza ikastaroa** antolatu du Amuska emakume

elkarteak abenduaren 12, 13 eta 14an, 18:00etatik 20:30era bitartean. Izena emateko aukera dago gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Euskararen Nazioarteko Eguna** dela eta, Loramendi euskara elkarteak honako ekintzak antolatu ditu bihar, zapatua: 11:30ean, tailerrak herriko plazan: aurpegia margotu, marrazkiak eta margo jolasak. Ezuste politak ere izango dira. Eguraldi txarra eginez gero, umeendako film emanaldia egingo dute udaletxe zaharrean. Arratsaldean, 13:00etan, Jaxintok agerraldia egingo du udaletxe zaharreko balkoian euskararen aldeko mezua botatzeko; eta azkenik, 18:00etan, gaztainak eta sagardoa banatuko ditu Gazte Ekimenak Mitarte kalean. Eguraldi txarra eginez gero, herriko plazako arkupetan izango dira.

ARRASATE

► **Euskararen inguruko** ekintzak antolatu dituzte biharko, zapaturako: Gazte Txokoen eskutik, futbito txapelketa kiroldegian (10:00), gazte bazkaria AEDn (14:30) eta ikuskizuna leku berean (16:30); herriko plazan, umeendako tailerrak (16:30), gaztaina, talo eta sagardo jana (18:30) eta, arratsalde osoan, hausnarketa. Bestetik, Arizmendi Ikastolan abenduaren 5ean, astelehena, ospatuko dute egun hori: pregoia entzungo dute ikasle guztiek, eta jolasak, jaialdiak eta beste ekintza asko egingo dituzte.

► **San Nikolasen** bolo-boloa egingo dute abenduaren 6an, martitzena, herriko plazan, 12:00etan lehenengo eta 12:30ean bigarren.

BERGARA

► **Alargunen Egoitza elkarteak** urteko bazkaria egingo du abenduaren 8an, eguna, Sirimiri jatetxean. Bazkide guztiak daude parte hartzera deituta. Izena eman nahi duten bazkideek elkartearen egoitzara joatea besterik ez dute.

ESKORIATZA

► **Euskararen Nazioarteko Eguna** dela eta, bihar, zapatua, honako ekintzak izango dira: 11:00etatik 13:00etara, umeendako jolasak eta tailerrak herriko plazan, ludotekak antolatuta; 17:30ean, euskal dantzak herriko plazan, Beheko Errota musika eskolako umeen eskutik. Segidan, bertsolari gazteek emanaldia egingo dute.

OÑATI

► **Euskararen Eguna** ospatzeko, gaur, egubakoitza, goizean ikasleek egin dituzten marrazkiak erakusketan ipiniko ditu Laixan elkarteak herriko plazan.

DEIAK

ARRASATE

► **Jostailu truke merkatua** egingo du Txatxilipurdik, eta horretarako jostailuak batuko dituzte gaur, egubakoitza, Seber Altube plazan. 17:00etatik 18:30era bitartean izango dira materiala batzen. Merkatua bera abenduaren 16, 17 eta 18an egingo dute.

BERGARA

► **Eski eta mendi materialaren** azoka txikia egiten ari da Pol-Pol mendi taldea bere egoitzan. Gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:30era izango da, eta bihar, zapatua, 18:00etatik 20:00etara. ► **Zapatismoaren inguruko** dokumentala emango dute etzi, domeka, gaztetxean. ► **Herri Eskolen** barnean, anarkismoaren gaineko hitzaldia izango da martitzenean, abenduak 6, kultura etxean, 19:00etan, Lander Juaristirekin.

ESKORIATZA

► **Nevenka Pavic** zeramikagile txiletarraren erakusketa eta hitzaldia izango dira bihar, zapatua, Ibarraundi museoan, 18:00etan.



► KONTZERTUA

INOIZ BAINO IKASLE GEHIAGO MUSIKA ESKOLEN KONTZERTUAN

Inoiz baino ikasle gehiagok, 250 inguruk, hartuko du parte aurtengo Debagoieneko Musika Eskolen kontzertuan. Hirugarren urtez antolatzen dute emanaldi bateratu hori musika eskolek, eta aurtengo berezitasuna da taldeak inoiz baino handiagoak izango direla. Gaur, egubakoitza, egingo dute kontzertua Bergarako pilotalekuan, 18:30ean, eta Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Soraluzeko ikasleek joko dute, adin eta estilo guztietakoak. Oso kontzertu bariatua izango da: esaterako, Eskoriatzatik gaitariak joango dira; Aretxabaletatik, dantza taldea; Oñatitik, flauta taldea; Arrasate-tik, combo bat... Ordubate inguruko kontzertua izango da.

Non: Bergarako pilotalekuan. **Noiz:** gaur, abenduak 2, egubakoitza. **Ordua:** 18.30ean **Sarrera:** 2 euro.

Abenduaren 17an
Santa Luzia eguneko
menu berezia!

Txuringo
Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klínika

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

Zinema

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Akordeoilari gazteek** kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Antiguako basilizan, 17:30ean. Arrasateko akordeoi lehiaketan parte hartuko dute akordeoila-ri horiek.

ARRASATE

► **Goikobalu abesbatzak** Harreman gobernuz kanpoko erakundearen aldeko emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, San Juan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan. Goikobaluko lau taldeek abestuko dute.

► **3.60 aretoak** honako kontzertuak antolatu ditu: gaur, egubakoitza, Sioux, Akrata eta Falta de Riego (23:00); bihar, zapatua, Shaggy Daddy & The Troublema-kers eta Radio Wings (23:00).

► **Sin Red** taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Gure-Leku tabernan, 23:30ean.

BERGARA

► **DJ KRC (Samu)** disko jartzaileak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, 22:30ean.

► **Union** taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:00etan. Txartelak 22 eurotan daude salgai aldezturretatik, eta 24 eurotan salduko dituzte txarteldegian. Bruce Kulick (Kiss) gitarra-jolearen taldea da, eta gainerako partaideak dira John Corabi (Motley Crüe), Chuck Garrit (Alice Cooper) eta Fred Coury (Cinderella).

► **Sexty Sexers (Bera) eta Kabul (Hondarribia)** taldeek joko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean, Euskararen Eguneako ekitaldien barne.

► **Belceblues** talde bergarar berriak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Nahikari tabernan, 23:00etan. Bluesa eta rock-and-rolla egiten dituzte.

ESKORIATZA

► **Benito Lertxundi** kantautoreak gaur, egubakoitza, egitekoa zen kontzertua urtarilaren 13ra atzeratu da. Saldu diren txartelak balio dute ordurako.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Umeendako ipuinak** kontatuko ditu Oihulari Klown taldeak gaur, egubakoi-tza, Okendoko ludotekan, 18:00etan. Txatxilipurdik antolatu du Euskararen Eguna dela eta.

ANTZUOLA

■ OLARAN ETXEA

Promises

Egubakoitza: 22:00.

Glup

Domeka: 16:30.

ELGETA

■ ESPALOAIA ANTZOKIA

101 dálmatas

Domeka: 17:30.

Tigre y dragón

Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ KULTURA ETXEA

Siete vírgenes

Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Madagascar

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

Coffee & cigarettes (J.B.A.)

Eguena: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Harry Potter y el cáliz de fuego

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta

eguztzena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

El jardinero fiel

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena:

19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Harry Potter y el cáliz de fuego

Egubakoitza: 18:00, 21:00.

Zapatua eta domeka: 16:30, 19:25, 22:20.

Chicken little

Egubakoitza: 18:00, 20:00.

Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

El jardinero fiel

17:30, 20:00, 22:30.

El exorcismo de Emily Rose

20:00, 22:30.

Olentzero eta enbor magikoa

Egubakoitza: 18:00.

Zapatua eta domeka: 16:30, 18:15.

Feliz Navidad

17:30, 20:00, 22:30.

Oliver Twist

17:30, 20:00, 22:30.

Desaparecida

20:00, 22:30.

El mejor día de mi vida

22:30.

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Egubakoitza: 18:00.

Zapatua eta domeka: 16:30, 18:15.

■ FLORIDA-GURIDI

Hermanas

17:00, 19:45, 22:30.

Mozart txakurra

17:30.

Viva Zapatero

17:00, 19:45, 22:30.

Match point

17:30, 20:00, 22:30.

Oliver Twist (euskaraz, azpiztituluekin)

20:00, 22:30.

Elsa y Fred

17:00, 19:45, 22:30.

La vida secreta de las palabras

17:30, 20:00, 22:30.

En sus zapatos

17:30, 20:00, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Chicken little

16:00, 18:00, 20:00, 22:20, 00:30.

En sus zapatos

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Inmersión letal

16:30.

La leyenda del zorro

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

El exorcismo de Emily Rose

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Desaparecida

16:00, 18:00, 20:00, 22:20, 00:30.

Saw 2

16:00, 18:00, 20:00, 22:30, 00:30.

Más allá del odio

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Virgen a los 40

19:00, 22:20, 00:30.

Harry Potter y el cáliz de fuego

15:50, 19:00, 22:10, 01:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Desaparecida

12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

La leyenda del zorro

12:15, 16:45.

Chicken little

12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 21:50, 23:40.

Harry Potter y el cáliz de fuego

Egubakoitza eta zapatua:

17:00, 20:15, 23:30.

Domeka: 12:15, 15:30, 18:45, 22:00.

Elizabethtown

19:55, 22:15, 00:35.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras

12:15, 16:40.

El exorcismo de Emily Rose

12:15, 15:35, 17:50, 20:10, 22:25, 00:45.

Trece entre mil

12:15, 16:15.

Match point

12:15, 15:30, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.

El jardinero fiel

19:05, 21:35, 00:05.

La novia cadáver

12:15, 16:35, 18:35.

Virgen a los 40

19:35, 21:55, 00:15.

Ojalá fuera cierto

12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Oliver Twist

12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

Más allá del odio

12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Olentzero eta enbor magikoa

12:15, 15:55, 17:55.

En sus zapatos

19:10, 21:40, 00:10.

Inmersión letal

20:30, 22:40, 00:50.

Princesas

20:20, 22:30, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

Desaparecida

12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

La leyenda del zorro

19:25, 22:15, 01:00.

Chicken little

12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:05, 00:30.

Harry Potter y el cáliz de fuego

12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

En sus zapatos

12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

El exorcismo de Emily Rose

12:10, 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

Una historia de violencia: ●●●● / *Match point:* ●●●● / *El jardinero fiel:* ●●●● / *La vida secreta de las palabras:* ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

LA NOVIA CADÁVER

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIAK: Tim Burton eta Mike Johnson.

Ez da askotan ikusten urte berean bi film estreinatzen dituen zuzendaria, baina batzuetan gertatzen da. Orain aste batzuk, zinemari eskainitako tarte honetan, Tim Burtonen Charlie y la fábrica de chocolate aipatu genuen, eta orain, Mike Johnstonekin batera zuzendutako La novia cadáver ikusteko aukera izan dugu. Film atsegin honek, lortzen duen emaitzengatik,

erabiltzen dituen gaiengatik eta pertsonaiengatik eta filmatzeko tekniken-gatik, Pesadilla antes de Navidad filma dakarkigu burura.

Burtonen film bat baino gehiago ikusiz gero, argi ikusten da zuzendari amerikarrak fantasia gustuko duela, erre-alitatearen eta magiaren eta irudimena-ren arteko norgehiagoka azaltzen baitu. Askotan gazteluz, heriotzaz eta giro ilunez beteriko mundu gotikora hurbiltzen da. Agertzen diren pertsonaia asko euren munduan dagoen zikoizkeria eta gaiztakeriaren aurrean babes txikia duten gizaki bakartiak dira. Zuzendariari gauzei buelta ematea gustatzen zaio; hala, askotan, mundu iluneko biztanleak gure munduko biztanleak baino abegitsuagoak eta maitagarriagoak izaten dira.

Idatzitako guztia La novia cadáver-en agertzen da. Istorio erromantikoa



da: posible diren eta ezinezko diren amodioak gertatzen dira; istorio dibertigarria da: abesti eta erritmo biziak ditu; hildakoen munduan kolore biziak nagusi dira, horiek mundu normalean dauden kolore motelekin kontrajartzen dira; nahiz ukitu ilunak izan, istorioan samurtasuna nagusitzen da: Burtoni ikuslea

dibertitzea eta pixka bat izutzea gus-tatzen zaio, baina filmean xarma sentsazio magikoak eta kontaktzen ari dena-renganako maitasuna nagusi dira.

Pesadilla antes de Navidad-en egin zuen bezala, Burtonek stop motion metodoa erabiltzen du; hau da, panpinak eskuz mugitzen dira fotograma bakoitzean, eta gero, denak elkartuz, mugimendu jarraituko sentsazioa lortzen da. Artisau-lan horrek filmari xarma berezia ematen dio. Horri Danny Elfmanen musika eta abesti ederrak gehitzen badizkiogu, baita erritmoaren zentzu bikaina ere—istorioa arintasunez garatzen da, iraupena 75 minutu besterik ez da—, lortzen den emaitza xarmaz, magiaz eta poesiaz beteriko entretenimendua daukagu.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2005/12/31, astelehenetik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ÁBACO

ZINEMA MAILA GORENEAN



IMMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa erdialdean 180 m².
- Duplexa erdialdean Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Erdialdea 106 m². Oso ondo.
- Matxiategi 74 m². Berritzeko.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- Bidekurutzeta 70 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Erdialdea 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzeta 65 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Osintxu 100 m². Berritzeko.
- Erdialdea 97 m². Oso ondo.
- Bolu 85 m². Ondo.
- Zubieta 65 m². Terraza.

Antzuola:

- Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
- Sagazti 88 m². Berria.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T. 943 76 21 80 F. 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T. 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

BERGARA:

- Erdialdea 160 m². Garajea.
- Erdialdean, duplexa 93 m². Berria.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Aranerrea 115 m². Oso ondo.
- Erdialdea 68 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Martoko 60 m². Berritzeko.
- Ibargarai 106 m². Berria.
- Zubieta 80 m². Oso ondo.
- Duplexa, erdialdean 170 m².
- Azkaruntz 60 m². Eguzkitsua.
- Bolu 84 m². Oso ondo.
- Basarte 70 m². Ondo.
- Ozaeta 84 m². Ondo.
- Erdialdea 100 m². Berritzeko.
- Boni Laskurain 92 m². Oso ondo.

ELGETA:

- 70 m². Berritzeko.

SORALUZE:

- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

Iragarki sailkatuak

943 25 05 01 edo *sailkatuak@goiena.com*

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Sukaldea, komuna, berogailua. 174.000 euro. 652 70 57 91.

Aretxabaleta. Etxea salgai. Guztiz jantzita, egoera onean. Berogailua. Momentuan sartzeko moduan. 50 m². 626 60 11 07.

Arrasate. Amaia antzokiko eraikinean etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. 96 metro koadro ditu. 652 73 93 86.

Arrasate. Udalpe auzoan. 69 m². Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea, bi balkoi. Oso eguzkitsua. Bizitzera sartzeko gertu. 686 81 45 59.

Bergara. Etxebizitza salgai Ibargarai kalean. la berria. 106m². 685 75 78 16.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Erabat berritua eta altzariekin. Sukalde jantzia. Hiru logela. Berogailua ere badu. 943 76 93 43 edo 630 65 29 84.

Bergara. Ibargarai kalean. 86 metro koadro erabilgarriak. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. 646 57 95 21.

Bergara. Koldo Eleizalde. 3 gela eta 2 komun. Ganbara eta trastelekua. Kanpora begira. Egoera onean. Garajea

ere aukeran. 658 72 65 25 edo 943 76 27 68.

Bergara. Masterreka. Hiru logela. Kanpoaldea. Jantzia. Garajea erosteko aukera ere badago. 943 76 18 81 edo 656 78 35 32.

Bergara. San Antonion etxebizitza salgai. 72 m². Hiru logela. Erdi jantzia. Eguzkitsua. 160.000 euro. 943 76 40 65 edo 945 33 71 98.

Bergara. Telesforo Aranzadi kalean etxebizitza salgai. 140 m² ditu eta berritua dago. 699 75 45 46.

Donostia. Etxebizitza salgai Antiguan. 74 m². Eguzkitsua, berritua. Gas naturala. 360.000 euro. 20:30etik 22:00etara deitu. 645 00 63 63.

Donostia. Etxebizitza salgai Grosen. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi bainu eta terraza. 606 28 39 86.

Elgeta. 2. solairua igogailuarekin. Hiru logela. Ganbara. Egoera onean. 645 71 76 25.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan ematen da. 651 70 79 96.

Eibar. Teilatupea (atikoa) ematen dut errentan. Igo-gailu eta guzti. Toki onean dago. Deitu 22:30ak inguruan. 678 82 29 95.

Vera (Almeria). Hondartza eta urbanizazio naturistan

ARETXABALETA

ILE APAINDEGI BATEK LAGUNTZAILEA BEHAR DU. 1.200 EURO HILEAN. 635 70 66 02

dagoen etxebizitza errentan. Jantzita. Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza bat hartu gura dugu errentan. 600 73 95 92.

Debagoiena. Bikote batek etxebizitza hartu gura du errentan. Presazkoa. 626 48 43 42 edo 690 28 78 85.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Hiru lagunena bila nabil etxebizitza osatzeko. Aukera ona. 697 41 66 24.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai. Torrekua kalean dago. 630 08 24 17.

Bergara. Garajea salgai Bolun. Bi autorendako tokia dauka. 629 56 29 25.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garaje itxia. 38 m². 656 73 79 54.

Arrasate. Erdigunean, Olarte kalean. Garaje itxia. 616 70 78 91.

Arrasate. Garajea alokagai daukat Obenerrekan. Bi auto-

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

rendako lekua dauka. 21:00ak eta 22:00ak artean deitu. 943 79 69 41.

Bergara. Garajea Zubiaurren. Auto txiki batendako edo trasteleku bezala erabiltzeko aproposa. 943 76 23 53.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. Lokal komertziala salgai Eguzki auzoan. 128 m². 605 77 39 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakumezko bat behar da etxeko lanak egiteko. Ordutegia: 09:00-14:00. 943 76 12 73.

Neska euskalduna behar da arratsaldeetan umea zaintzeko. 635 72 76 59.

Oñati. Hilabeterako emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Egunean 5 ordu lan egiteko da. 630 08 24 17.

402. ESKAERAK

Arrasate. Mutila lanerako gertu. Sukaldean laguntzaile edo garbiketa lanak. 08:00etatik 16:00etara egin-gu nuke lan. 666 83 21 95.

BERGARA

LAGUNTZAILEA BEHAR DA ILE APAINDEGIRAKO. 627 47 98 53

Bergara. Neska euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 943 76 25 59.

Debagoiena. Emakume euskalduna prest umeak edo nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

Debagoiena. Neska euskalduna prest gaixoak zaintzeko ospitalean, gauze edo egunez. 653 71 53 61.

Gidari lanak egiteko prest nagoen gazte bat naiz. Esperientziaduna. C eta E gidabaimenak ditut. 667 02 63 71.

Neska lanerako prest: garbiketak egingo nituzke. Pertsona nagusiak ere zainduko nituzke; etxean berarekin bizitzeko prest nago. 659 20 40 92 edo 943 76 15 58.

Psikologo venezuelarra umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Graduondoko ikasketak egiten ari naiz EHU eta umeekin lan egin izan dut. 695 70 11 57 edo 943 76 65 67.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Pertsona bat behar da Gestio Administratiboko eskolak emateko. 943 79 83 96 edo 609 90 74 14.

Bergara. Aleman eskolak hartuko nituzke. Olinarrizko maila. 656 54 60 47.

ESKORIATZA

GAZTELEKURAKO LANGILEAK BEHAR DIRA. ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO. 943 76 54 46 gazteak@txatxilipurdi.com

502. EMAN

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialra eskola partikularrak emateko prest. Hainbat ikasgai. Maila guztiak. Esperientzi handia. Telefonoa: 630 71 35 83.

Bergara. Eskola partikularrak emango nitzkieke DBHko ikasleei. 675 70 17 63.

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. 690 20 54 75.

Bergara. Kimikan lizentziatutako neska maila guztietako eskola partikularrak ematen ditu. Aprobaterik nahi? Animatu! 652 76 70 12.

Bergara. Lehen Hezkuntzako, DBHko eta 1. eta 2. mailako eskolak. Irakasle ikasketak egin ditut. 943 76 12 49 edo 635 20 76 90.

Debagoiena. Eskolak emango nitzkieke DBHko eta Batxilergoko ikasleei. Ingeniaritza teknikoko ikasketak egin ditut. 943 79 08 00.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana. Fiat Ducato Capuccina. Bost leku. 1999koa. 651 70 79 96.

California Coach furgoneta salgai. 1996koa. 86.000 km. 19.000 euro. 618 05 39 55.

Fiat Tipo autoa. 1996koa. 82.000 kilometro. 1.500 euro. 656 74 80 47.

Ford Sierra XR 2.0 i autoa salgai. 4x4 traxioduna. Egoera onean. 605 75 96 11.

Ford Focus 1.8 TDCI autoa salgai. 100 ZP. 5 ate. 38.000 km. 665 73 65 95.

Golf GTI autoa salgai. SS-AF. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

Hypermobil 564 autokarabana salgai. 136.000 km. 6 toki egunez eta 4 gauzez. Ondo zaindua. 945 44 52 67.

Malaguti Firefox motorra salgai. 750 euro. 678 33 05 19.

Mitsubishi Montero IO 2.0 GDI mendiko autoa salgai. 60.000 km. 5 ate. 12.500 euro. Gorka. 657 71 01 61.

Peugeot Partner. 2000 HDI. Lau urte ditu. Egoera onean. 627 21 87 49.

Scooter Honda Phanteon salgai. 150 cm³ eta 13.700 km. BI-CU. (Jabi). 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

Volkswagen Golf GT autoa salgai. 100 ZP. IAT 2007ra arte. 5.600 euro. 656 75 49 25.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Mendiko txerriak saltzen ditut. 605 76 10 00.

703. EMAN

Bi txakurkume opari egiten dira. Bi hilabetekoak. 943 76 12 93.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bergara. Kutxa-izozkailua salgai. 943 76 50 26.

Bizikleta salgai. Hamar urteko umearentzako modukoa. Prezio ona. 943 79 11 24.

Bizikletak salgai. TKV taldearen errepideko bizikletak salgai (Mendiz markakoak) 1.000 eurotan. 670 71 00 42.

OÑATI

KIWIAK SALGAI. IRABAN BASERRIKOAK. 10 KILOKO KAXAK. KALITATE/PREZIO ONA. 943 78 18 32

BERGARA

ILE APAINDEGIA EMATEN DA ERRENTAN. 665 71 90 76

Eskiatzeko traje gorria salgai. 4-6 urteko haurrentzako da. Eskularruak opari egiten dira. 15 euro. 687 01 79 82.

Forfaita. 14 eguneko forfaita salgai. Formigaleko estazioa (Aramon). 669 94 67 77.

Hezegailua salgai. Haurren logelari jartzeko da. 20 euro. 687 01 79 82.

Mahaia. Sukalderako. 90x90 cm. Luzatzekoa. 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

Sofa. Relax markakoa eta beix kolorekoa. 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

Soinu txikia salgai. Hiru ahots ditu. Deitu arratsaldeetan. 630 26 01 05.

802. EROSI

Billete zaharrak eta txanponak erosten ditut. Mota guztietakoak. 945 44 50 44.

807. AURKITU

Telefonoa aurkitu dut, poltsikokoa. Udala inguruan, mendian. Joxe. 943 79 41 26.

9/ HARREMANAK

903. DEIAK

Abeslaria behar du Bergarako X-at musika taldeak. Metal gogorra. Kontakua: Dubi. 678 92 77 15.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko



Interioristak

Oihana Plaza & Oihana Beristain

- Barne arkitektura eta lokalen proiektuak eta berrikuntzak
- Obra zuzendaritza
- Erakusleho apainketa


616 84 55 96



B. CASADO
ITURGINTZA

Negozioa saldu edo alokatzen da
(350 metro karratuko lokala bi solairutan banatuta)
LIKIDAZIO OSOA

Otalora Lizentziaduna 4, behea **ARRASATE**
Tel.: 943 79 68 82



Maalako errabala 5 **ARRASATE**
Kale barria 18 **OÑATI**

Lehenak gara... eta zu ere lehena izango zara.



Rosario Larrañaga eta **Santiago Labaka** osintxuarrek 50 urte egin dituzte ezkontuta. 1955eko apirilaren 30ean ezkondu ziren. Urrezko ezteiak domekan ospatuko dituzte etxekoekin. Zorionak!



Maria Matilla eta **Celestino Vicente** bergararrak Salamancan ezkondu ziren orain 50 urte, 1955eko azaroaren 26an. Urrezko ezteiak seme-alaba eta ilobekin ospatu zituzten zapatuan. Zorionak!

ESKER ONA

**Jose Luis
Errasti Arizmendarrieta**

Angiozarren hil zen 2005eko azaroaren 27an, 62 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Angiozarren, 2005eko abenduaren 2an.

ESKER ONA

**Blas
Aizpurua Odriozola**

Bergaran hil zen 2005eko azaroaren 16an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko abenduaren 2an.

ESKER ONA

**Jesus
Olabarria Gisasola**

Bergaran hil zen 2005eko azaroaren 20an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko abenduaren 2an.

ESKER ONA

**Jesus
Errasti Idigoras**

Aretxabaletan hil zen 2005eko azaroaren 28an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2005eko abenduaren 2an.

ESKER ONA

**Luis Apaolaza
Velez de Mendizabal**

Arrasaten hil zen 2005eko azaroaren 25ean, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.




Arrasaten, 2005eko abenduaren 2an.

ESKER ONA

**Joaquin
Irigoien Ramirez**

Malagan hil zen 2005eko urriaren 15ean, 92 urte zituela.

Samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko Irigoien-Oiartzabal eta
Lekuona-Irigoien sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko abenduaren 2an.

URTEURRENA

**Alejandro
Arauzo Sandoval**

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 4an,
eguerdiko 12:30ean,
Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Ignacio
San Vicente Orbegozo**

Bigarren urteurreneko meza
astelehenean, abenduaren 5ean,
19:00etan, Arrasateko Asuncion
kaperan, Arrasate pasealekuan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Inazio
Zubia Uribarren**

Laugarren urteurreneko meza
domekan, abenduaren 4an,
12:00etan, Eskoriatzako
Pedro Deunaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Juan Cruz
Kortabarria Larrea**

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 4an,
11:30ean,
Antzuolako parrobian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

ONATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045



Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran



Garbiketetan
profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Mazda6. Kirol zaletasuna.



Bikar

M MENDIOLA

San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE






GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.


Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



AURRETIK



ONDOREN

Orbainak kentzeko edo ezkutatzeko hainbat tratamendu daude.

Orbainak (zikatrizak)
kendu egin daitezke?

Orbaina berria edo zaharra den araber. Urtebete baino gehiago badu orbainak zaharra da; urtebete baino gutxiagokoa bada, berriz, berria da.

Ebakuntza baten edo edozein zauriren ostean orbaina itxi arte denbora bat itxaron behar da. **Ondoren, drainatze linfatikoren bidez zeluletan egindako kaltea konpondu egin behar da. Inguruko zirkulazioa aktibat**u egin behar da orbainaren ingurua irrigatu ahal izateko; hori guztiori egiten da orbain-keloiderik (orbain sendoa) gera ez dadin. Hori egin ondoren orbaina zer-nola-koa den ikusiko da eta ondoren teknikaren bat aplikatuko zaio: AP-4 eta ultrasoinuak edo AP-4 eta berreskuragailu ahalmena duen teknika edo beste teknikaren bat.

Ez da berdin tratatzen titiak txikitzeko ebakuntza baten ondorioz geratzen den orbaina eta titiak handitzearen ondorioz geratzen den orbaina. Ez da berdin tratatzen abdominoplastiaren ondorioz geratzen den orbai-

na eta lipektomia (abdomena txikitzea) baten ondorioz geratzen dena. Ez da berdin tratatzen aurpegiko kirurgia baten ondorioz geratzen den orbaina eta kirurgia konpontzailearen ondorioz geratzen dena.

Ebakuntza noiz izango den baldin badaki, zainketa berezia egongo da aurretik, hala nola: ehunen sendotzea, azala ondo hidratatzea (ebakuntza aurretik ondo gertatzen bada, ondoren errekupe

razioa hobea izango da). **Horrela, ehunean emandako puntuek sortutako apertura eta traumatismoak errazago errekupe**ratuko dira.

Betazalean ebakuntza egin ondoren geratzen diren orbainak denbora laburrera desgertu egin behar dira. Lepoan ere berd

in gertatzen da, berd

in da estetiko kirurgiaren ondorioz sortutakoa izatea edo tiroidea kentzearen ondorioz sortutakoa izatea.


Orbainak urtebete baino gehiago badu, tratamendua desberdina da; dena dela, lortzen den emaitza ere ona da.





Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Bestela		Zilbor		Aipamen
	Magoa		Muskulu-uzkurdura		
	➤		▼		▼
	*Izena	➤			
	Izukaitz				
Makila-ukaldia	▼	Euskara ikasteko	➤	Potentzia	➤
Bigun, apurkor		Masaila		Fabore	
➤		▼		Mondragon Unibertsitatea	➤
				Tona	▼
Soinuak grabatzeko zinta	➤			▼	la aritu gabe bezala
Bi aldiz					
➤				Selenioa	➤
				Arkatz	▼
Pinu mota	➤			Legez, bezala	
*Deitura				Ortzi	
➤			▼		
Errep., gorotza	➤		Hegazti mota	➤	
Jadanik			Gehitzeko partikula		
➤		Eskuko hatza	➤		Bat
		Idi hitz-elkarketan	▼		Herri hizkeran, zer
Diru mordo	➤	▼			▼
Burdinazko lokarri					
➤				Zegoen	

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



MARRUBIAK

Tolosar honek baratze koskor bat zeukan eta marrubiak aldatu zituen bertan. Sasoia iritsi zenean, simaurra bildu eta baratzean zabaldu zuen.

Lanean ari zela, paseoan zebilen beste tolosar bat gera-tu zitzaion begira:

- Joxe Mari! Zertan ari haiz, ordea?
- Ez al duk ikusten edo? Marrubiei simaurra botatzen!
- Simaurra? Esnegainare-kin ez al zaizkik gustatzen edo?

APRETAK

Larunbata da eta Ferminiko Iruñera joan da egun pasa, etxeko jantzirik dotoreenak soinean eta apreta zuriak oinetan.

Eguna batetik bestera pasa eta ilunabarrean, diskoteka batera sartzea otu zitzaion. Atezainak, berriz, apretekin zegoela ikusita, ez zion sartzen utzi nahi, zapatak eraman behar zituela argudiatuz. Eta Ferminikok:

- Zer ba? Lokatza al dago edo?

BUSH ETA PUTIN

Bush eta Putin elkartu ziren azken aldian izandako elkarriketa:

- Arazo larri bat sortu zait —esan zuen Bushek—. 50 aholkulari militar dauzkat. Badakit beraien arteko bat espioia dela, baina ez dakit nor den.

- Okerragoa da nire arazoa —erantzun zion Putinek—. Nik 50 aholkulari ekonomiko dauzkat. Beraien arteko bat konpetentea da, baina ez dakit nor den!

SOLUZIOAK

N	E	Z	•	E	T	A	K
A	Z	T	U	R	I	D	•
I	•	I	R	E	•	A	J
R	E	P	E	•	A	K	•
A	D	A	Z	T	L	A	K
Z	E	L	•	R	E	L	•
E	S	•	N	A	T	I	B
•	E	T	E	S	A	K	•
U	M	•	R	U	A	M	S
P	•	K	E	A	•	M	•
I	L	I	P	•			
A	I	T	Z	A			
•	Z	•	E	•			



Abenduaren 5a: 67 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, abenduak 5, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Abenduak 5eko sariak



- "PHILIPS" radio-kasete zoragarri bat.
- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeke. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



DOMINIKAR ERREPUBLIKARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu abenduan, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea:

VIAJES IBERIA

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Kuota:

Harpidetza kuota, 36 euro

2006 bukaerara arte.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

066
zozketa

saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

Sei gonbidapen **EIBAR-GIJONGO**
SPORTING futbol

partidua ikusteko (Saridun
bakoitzari bi emango zaizkio).

- Iñaki Campo Ibarrondo (Oñati)
- Karmele Gisasola Zabaleta (Bergara)
- Javier San Miguel Oianguren (Aretxabaleta)
- Ibai Mendiaratz Gallastegi (Arrasate)
- Luis Mari Mendauzketa Heriz (Arrasate)
- Karmelo Aginagalde Aginagalde (Arrasate)

Bi gonbidapen Donostiako
AQUARIUMa bisitatzeke.
(Saridun bakoitzari bi emango
zaizkio).

- Maria Jesus Arbulu Arin (Antzuola)
- Leire Ruidiaz Abarrategi (Arrasate)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI**
zinemetara joateko eta beste bi
gonbidapen Gasteizko San
Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi
menu jateko (saridun bakoitzari
bi emango zaizkio).

- Pedro Okariz Ruiz de Azua (Bergara)
- Jose Mari Arregi Aranburu (Elgeta)

GOITBERRIAK

Zapatu eta domeketan
marrazki bizidunak
08:00etan

Aurrerantzean ibarreko gaztetxoek marrazki bizidunak ikusteko aukera izango dute GOITBn. Zapatu eta domeka goizetan hiru orduko marrazki bizidunen etengabe eskainiko ditu ibarreko telebistak. *Montana, Card Sakura, Lazkao Txiki* eta gainerako marrazki bizidunak ikusteko aukera izango da.








Gaztelupeko Hotsak
diskoetxea eta
Arteman, elkarlanean

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak eta Arteman publizitate agentziak elkarlanean dihardute. Azaroaren 8an Bilboko Arriaga antzokian kontzertua egin zen Lauaxetaren omenez; hamaika euskal kantari izan ziren taula gainean: Gari, Petti, Mikel Urdangarin, Anje Duhalde,... Eta Artemanek grabatu egin zuen, hiru kamerarekin.

Eskiatzaileendako
eskaintza berezia
datozen egunotan

Eski denboraldia hastear da, eta GOITBn zenbait saio berezi egingo dituzte. *Harmailatik* eta *Behazulo* saioetan tarte bereziak egingo dituzte. Besteak beste, Julen Iriondok aurkezten duen *Harmailatik* saioan, Arrasateko Loramendi Kirolak dendak eski materialaren gaineko gomendioak emango dizkie ikus-entzuleei.

GOITBPROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA, 2	ZAPATUA, 3	DOMEKA, 4	ASTELEHENA, 5	MARTITZENA, 6	EGUAZTENA, 7	EGUENA, 8
 <p>Mikel Laboa 'Ilunpean', Oihana Elortzarekin 22:15 Mikel Laboak disko berria kaleratu du Elkar argitaletxearekin. <i>Ilunpean</i> saioan diskoaren gainean arituko da Oihana Elortzarekin.</p>	 <p>Elgetako Jazz lehiaketa gaur arratsalderako 15:45 Elgetako Espaloia kafe antzokian jazz lehiaketa egin zuten urrian. Lehiaketan parte hartu zuten taldeen kontzertua eskainiko dizuegu.</p>	 <p>Oñatiko gaztetxea mintzagai 16:15 Oñatiko gaztetxearen gaineko mahai ingurua ikusteko aukera izango da. Udal ordezkariak eta gaztetxeak parte hartuko dute.</p>	 <p>Asteburuko kirol emaitza guztiak 'Harmailatik'-en 21:15 Asteburuko kirol ekitaldi guztien emaitzak emango dizkigu Julen Iriondok. Asteburuko protagonista izango da platoan.</p>	 <p>Eski denboraldi hasiera 'Behazulo' saioan 23:15 Arrasateko Athlon kirol medikuntza zerbitzukoak gomendioak emango dizkiete eskiatzaileei denboraldi hasieran.</p>	 <p>16 mm saioan Kepa Aranburu protagonista 22:15 Kepa Aranburu oñatiarra izango da 16 mm saioko protagonista; <i>2057, odisea bat kanposantuan</i> film laburrarekin.</p>	 <p>Maroko globoan zeharkatzeko aukera 18:15 Maroko globoan zeharkatzeko aukera eskainiko digu <i>Iparrorratza</i> saioak. Abentura-zaleentzat eta bidaiek gogoko dituztenentzat.</p>
<p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ikuskizuna. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.</p>	<p>07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Motzean eta Zera dio. 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:45 Didjeridu. 14:15 Klipak. Musika taldeen bideoklipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:15 MKT. 15:45 Ikuskizuna: Elgeqako Jazz lehiaketa. 16:45 Danbaka. 17:00 Erreportajea. 17:30 Marrazki bizidunak. Bilduma 19:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. Eski denboraldia. Athlon kirol medikuntza zerbitzuko adituak eta mendi materiala. 20:30 Zera dio eta Motzean. 20:45 Ilunpean. 21:15 Didjeridu. 21:45 Berbaire: Oñatiko gaztetxea mintzagai 22:45 Behazulo: 23:15 16 mm. 23:45 Emisio amaiera.</p>	<p>07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. Kremaz betetako krepak. 12:45 Erreportajea. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klipak. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Bidetxurretik. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 MKT musika. 16:15 Berbaire: Oñatiko gaztetxea mintzagai. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 18:45 Klipak. Musika bilduma. 18:15 Iparrorratza. 18:45 Behazulo. 19:15 Zera dio eta Motzean. 19:30 Ilunpean. 20:00 Didjeridu. 20:30 16 mm. Lekeitioko bideo bilera eta <i>Benimaru</i> film laburra. 21:00 Jaun ta jabe. 22:00 Berbaire. 22:45 Didjeridu. 23:15 Emisio amaiera.</p>	<p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Bidetxurretik. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Jaun ta jabe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albisteak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera</p>	<p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: Makila egilea. 18:15 Bidetxurretik. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera</p>	<p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparrorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Jaun ta jabe. 21:45 Berriak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.</p>	

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

Mikel Laboa
solaskide

ILUNPEAN

Gaur, egubakoitza, abenduaren 2an: 22:15ean
Aurkezlea: Oihana Elortza



Ikustekoa!




Eskaintza honek 2005eko azaroaren 24tik
2006ko urtarrilaren 5era balio du



**Gora
Gabonak**



**Behera
prezioak**



Gabon Opariak 2005



EROSKI

Erosten jakin

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Nagore Etxeberriarteun/ Enologia ikaslea

Zein da Enologia ikasketetako lehen ikasgaia? Kimika. Joan nintzen lehen egunean formula ugari ikusi nituen. Eskolan ikasitakoa ia ahaztuta nuen, eta pixka bat beldurtu ere egin nintzen. Ardoaren konposizioa erakusten dute, eta beharrezkoak dira formulak.

Zenbat ikasle zaudete?

15. Guardia (Biasteri) eta Paganos ingurukoak gara guztiok.

30 urtetik gora hasten ei gara ardoaz disfrutatzten. Egia da?

Baietz uste dut. Gazteagoek garagardoa edaten dute,

baina 30 eta 40 urte bitartekoek ardoa eskatzen dute.

Ardo ona?

Ondua (*crianza*) eskatzen du jendeak tabernetan.

Zuk zeuk zer edaten duzu jatorduetan?

Eguneroko jatorduetan, ura. Bestelako afarietan edo bazkarietan, ordea, ardoa.

Ardoaren ala janariaren zerrenda irakurtzen duzu lehenago jateke batera zoazenean?

Janariarena. Nik jatekoa aukeratzen dut eta senarrak, edatekoa; ardoa, beti.

Beti ardo bera?

Ez, ez. Saiatzen gara, gainera, beste izendapen bat

duten ardoak eskatzen.

Batzuetan bidaiak ere egiten ditugu beste jatorrizko izendapen bat duten upelategietara.

Zer moduzko uza izan da azkena?

Oso ona. Mahatsa sano etorri da, usteldu barik.

Zenbat litro ardo egiten dituzue urtero?

110.000 litro urtero, batez beste. Zati bat gordetzen dugu urterako eta beste bat ontzeko, eta horren zati txiki bat erreserbarako.

Non saltzen duzue?

Lituanian eta Ingalaterran saltzen hasi gara oraintxe. Gehiena, ordea, Euskal Herrian eta Espainian saltzen dugu.

Zaila da tokia egitea?

Askok kostatzen da lortzea ardoaren izena ezaguna izatea. Jendeak izen batzuk ezagutzen ditu eta horiei eusten die, kosta egiten zaio beste batzuk probatzea. Hala ere, janariarekin ere berdina egiten

dugula uste dut, normalean etxe bereko produktuak erosten ditugu beti.

Erakusteko duzue zuen upelategia?

Bai. Aurrez deitu behar da, ordea. Ardo dastatzea ere egiten dugu eta bazkaria ere ematen diegu 15 lagun baino gehiagoko taldeei.

Arkitekto bat baino gehiago inspiratu ditu ardoak, ezta?

Turismoa erakartzeko egin dituzte upelategi horiek. Jende asko, berriz, betiko upelategiak ikusteko gogoz etortzen da.

Aspaldikoa da zuena?

Bai. Musulmanen garaiko upelategi bat ere badu, gaur ez badugu erabiltzen ere. 2000n egin genituen handitzeko azken obrak.

Zerekin kentzen da ardoak utzitako orbana?

Ur oxigenatuarekin. Ur oxigenatua sartu aurretik bota behar da ur oxigenatua orban gainera, eta listo!

“Ur oxigenatuarekin kentzen dira ondo ardoak uzten dituen orbanak”

“Zaila izaten da lortzea ardoaren izena ezaguna izatea; jendeari kosta egiten zaio ezagutzen ez duen ardoa eskatzea”

“Arkitekto ezagunen upelategiak badaude, baina betikoak ikustera datoz asko”

► Arrasate / 30 urte / Garcia de Olano upelategian dabil

PIPERRAUTSA

Noticias

Horrelaxe izendatu dute egunkari berria, *Noticias de Gipuzkoa* (NdG), erdaraz eta euskal ukituarekin. Nafarroa eta Araban argitaratzen direnen anaia izan arren, ez dut uste inertzia hutsa egon denik izen aukeraketan.

Bistan da, NdG datorrela bete-betean gipuzkoar *beste* egunkariarekin lehitzera. Eta badirudi horrek baldintzatu dituela hasierako hainbat erabaki, tartean izena eta hizkuntza-eredua. Euskaldun naizen aldetik, oso tristea egin zait egunkari berri bat jaiotzea Gipuzkoan 2005ean, hain euskara gutxirekin. Alferrik pasatu ote dira azken 30 urteak?

Hizkuntzan ez bezala, diseinuan askoz hobea da NdG, *bestea* baino. Ez nau liluratu, baina oso txukuna da, modernoa, erakargarria.

Aldiz, herrietako kroniketan *bestea* da oraindik garaile erabatekoa. Arrasatek edo Bergarak orri oso bana izaten dute han, eta NdGk orri bakarra du ibar osoarentzat. Askok hobetu beharko du berriak, puntu hau erabakigarria baita erosle askorentzat.

Baina, benetan, lehiaren irabazlea erabakiko da eskelen arabera, eta ez naiz ari umore beltzean. Eskelena da *beste* egunkariaren zerbitzurik preziatuena, eta hemen igarriko da NdGren hozkada, inon izatekotan.

Esan dezadan zorte ona opa diodala egunkari berriari, nahi nukeelako egunkariaren espektroa hurbilago egotea gipuzkoar gizartearen ezaugarrietatik. Oraingoa ez da normala, ezta sana ere.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51